

**UPV/EHUko
EUSKARAREN
PLAN GIDARIA
(2007/08-2011/12)**

EUSKARA ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKARA

www.ehu.es

www.ehu.es



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU
Euskararen Plan Gidaria

(2007/8-2011/12)

UPV/EHU Euskararen Plan Gidaria

(2007/08-2011/12)

(Gobernu Kontseiluak 2007ko ekainaren 21ean onartua)

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-8373-999-0

Lege gordailua: BI - 2926-07

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.

Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)

Hitzaurrea

Honako dokumentu honetan UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Plan Gidaria aurkezten dugu, gure erakundeak gai honetan gauzatu duen politikari jarraipena eman nahi diona, betiere, eguneratutako abiapuntu batetik.

Azken hamabost urteetan Euskararen Erabileraren Normalizaziorako bi Planak prestatu, onartu eta garatu ostean, Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntza-politikak ikuspuntu berria hartu behar zuen, bereziki, Europako Unibertsitate Eremua (EUE) osatzeak ekarriko dituen aldaketa garrantzitsuak kontuan hartuta.

EUEra egokitzea, inolako zalantzarik gabe, azken hamarkadetan gure erakundearen antolaketak bizi izan duen eraldaketa zabalena, handiena eta sakonena izango da, eta horrek UPV/EHUren errealitate soziolinguistikoa baldintzatuko du. Horrek guztiak, nire iritziz, euskararekin eta horrek unibertsitatean duen paperarekin lotutako inertzia mental errotuenak baztertu beharra dakar.

Dokumentu honi ez diogu Normalizaziorako Plana deitu nahi izan, besteak beste, gure us-tez izen hori jadanik gaindituta dagoen errealitate bati dagokiolako. Baina horrek ez du esan nahi unibertsitatean oraindik euskararen aldeko zeregin asko geratzen ez denik, bai ordea, alde batera utzi behar dela UPV/EHUan euskarak duen gehigarri tratamendua, unibertsitatearen jarduera «normalaren» agregatu gisa ikusten duena. Euskarak eta unibertsitatearen euskal hizkuntzarekiko politikak ez dakarte unibertsitatearen ohiko eginkizunen gain-kostu edo gehigarririk. Are gehiago, euskara, gaztelania bezala, gure erakundearen identitatearen eta jardueraren muinean bertan dago. Ez dauka zentzurik elementu bereizitatzat jotzen jarraitzeak. Gure

ustez, UPV/EHUK unibertsitate elebiduna dela erabat barneratuko duen unea heldu egingo da, eta orduan, euskara unibertsitatearen barrenetik jarioko da gaztelania jariatzen den naturaltasunarekin, azpimarratze politikorik eta eranskin erretorikorik gabe. Errealitate hori urrun dagoela jakitun gara, baina bide horretan funtsezko urratsak eman ditugu jadanik.

Era berean, ezin da alde batera utzi gure unibertsitatearen errealitate elebidunak gogoeta berri bat eskatzen duela, izan ere, unibertsitate-esparru berri batean murgildu behar dugu. Europako Unibertsitate Esparrura modu eraginkorrean, eta ez soilik hitzez, sartzeak gure irakaskuntza-eskaintzan Europako beste zenbait hizkuntza baliatzea eskatzen du, bereziki ingelesa. Zentzu horretan, normalizazio-prozesua inplizituki gidatzen zuen hizkuntzen arteko berdintasun-printzipioa, parekotasun-printzipioak ordezka dezake eta hala egin behar du. Printzipio horrek bi hizkuntza ofizialei eragingo die eta bere ondorioen artean izango da, ingelesaren erabilera zabaltzea, bai eta etorkizunean ikasgeletan zein laborategietan egon daitezkeen gainerako Europako hizkuntzen erabilera ere. Guztiz baztertu behar da hizkuntza-berdintasun irizpideei jarraiki, UPV/EHUren prestakuntza-eskaintza guztia, maila guzti-guztietan, bikoiztu edo hirukoizteko beharra, izan ere, kaltegarria ez ezik bideraezina ere bada. Berez, delako berdinzalekeria formal horren ondorioz, euskara gutxietsi eta apaindura linguistiko soil gisa geratuko litzateke. Konplexuagoa baina eragin aberasgarriagoa izango duen printzipio batera bideratu behar ditugu ahaleginak: unibertsitatean erabiltzen diren hizkuntza ofizialen arteko estatus paritarioa. Halaber, estatus paritario hori ez da baldintza politiko edo ekonomikoen menpe egongo, bai aldiz, gure inguruko errealitatea aintzatesteko eta gizarte-eskariak asetzeko helburua duten irizpide akademikoen menpe.

Hori da euskarak bere tokia aurkitzea ahalbidetuko duen bide bakarra, izan ere, testu-guru globalizatuan bizi gara, non ingelesa lingua franca baita, baina non gainerako hizkuntzek ezagutzaren sorreran eta hedapenean lehen mailako papera baitute. Eta bestalde, bide horretatik bakarrik jarraituko du Euskal Herriko Unibertsitateak bere egin duen goiburua, Iparragirrenen olerki hilezkorretik ateratakoa, betetzen: eman ta zabal zazu munduan frutua.

Juan Ignacio Pérez Iglesias

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea

Aurkibidea

1. Sarrera: Trantsizio-aldirako Plana	11
2. Euskararen egoera Unibertsitatean	15
3. Helburuak, estrategiak eta ekimenak: Planaren laburpena.	29
4. Jarduera-eremuak.	33
4.1. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak: hizkuntza eskakizunak, erabilera-planak eta ikastaroak	33
4.2. Euskarazko irakats-eskaintza.	51
4.2.1. Egungo titulazioak.	51
4.2.2. Euskarazko irakats-eskaintza Europako Unibertsitate Eremu Berrian.	67
4.3. Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz.	72
4.4. Euskarazko ikasmateriala	75
4.5. Prestakuntza linguistikoa.	85
4.6. Ikerketa eta zabalkundea	87
4.7. Oinarrizko arauak unibertsitatean euskara erabiltzeko.	90
4.8. Euskararen azpiegitura	93
4.9. Beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana	94
5. Planaren indarraldia eta finantziarioa	95

1

Sarrera: Trantsizio aldirako plana

Euskal Herriko Unibertsitateak, 1980. urtean sortu zenetik, eginahalak egin ditu beti bere eginkizun guztiak, irakaskuntzakoak zein bestelakoak, inolako trabarik gabe bete daitezten Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan. Gaztelera eta frantsesarekiko euskararen diglosia-egoera ikusita, begi bistakoa zen berdintasun linguistikoa lortzeko berriazko plangintza behar zela, epe motz, ertain eta luzerako helburuak zehazteko, bai eta horiek lortzeko estrategiak ere.

Horrela, bere garaian hizkuntza-normalizaziorako bi plan sortu ziren. Lehenbizikoa 1990. urtean onartu zen; bigarrena, berriz, 1999an. Azken horrek bost urteko indarraldia izango zuen, 2003/04 ikasturtea artekoa, hain zuzen. Ordurako martxan zegoen Europako Unibertsitate Eremua eraikitzeako unibertsitate-erreforma. Eremu hori eraikitzeako asmoa Bolognako Adierazpenean (1999) iragarri zen, eta Praga, Berlin eta Bergenen garatu, 2001, 2003 eta 2005. urteetan, hurrenez hurren.

Denok dakigun bezala, erreforma horren helburu nagusia Europako ikasketak bateratu eta elkartzea da, sistema homogeen, bateragarri eta argiago bat lortu, Europako edozein unibertsitatetan eskuratutako titulazioak homologatu ahal izateko. Hori lortzeko, gradu eta graduondoko titulazioen mapa berregituratzea zen eginkizunetako bat. Prozesu hori 2010. urtean amaituko zela aurreikusi zen hasiera batean, baina gaur arteko atzerapenak ikusita, ez dirudi ezarritako epeak beteko direnik.

Hala ere, epeen kontua alde batera utzita, argi zegoen denbora-tarte labur samarrean UPV/EHUK eskainitako titulazioak berregituratu egingo zirela. Horrek hizkuntza-normalizaziorako

plan berri bat egiteari buruzko zalantzak sortu zizkigun arduradunoi. Dударik gabe, edozein planek nahitaez izan behar zuen euskarazko irakats-eskaintzari buruzko atal garrantzitsua, oinarrizko helburu eta jarduerak jasoko zituen. Hori ikusita, honako galdera sortu zen: egin al zitekeen planik, jakin gabe gure unibertsitatean zein titulu eskainiko ziren, zein ikastegitan eta zein egoeratan? Egoera behin-behinekoa eta iragankorra zela kontuan harturik, erabaki garrantzitsuak hartuz diru publikoa alferrik gastatzeko beldurra zegoen. Aldi berean, baziren garrantzizko beste galdera batzuk ere: behin-behineko egoera batetik sortutako zalantzak edukita ere, *lasaitasunez* egokitu al zitekeen UPV/EHU Bolognako testuinguru berrira, alde aurretik hizkuntza-politika arautuko zuten jarraibideak ezarri gabe? Bestalde, ez al da egia gaur egungo hizkuntza-politikan ere badirela nahikoa zulo, hutsune eta erronka, eta denborarik galdu gabe erantzun behar zaiela horiei, kontuan izanik, gainera, hutsune eta erronka horiei ez dietela zuzenean eragingo Bolognako aldaketek?

Azkenik, barne-hausnarketa egin ondoren, argi ikusi da gehiago direla plan berri bat egitearen aldeko argudioak, kontrakoak baino. Zalantzarik gabe, plan berri hau ezin da aurreko bien jarraipen hutsa izan; izan ere, bere baitan bildu behar ditu honako hauek: alde batetik, gaur egungo arazoak konpontzeko hobekuntza-neurriak; eta, beste alde batetik, Europako Unibertsitate Eremuan euskararen erabilera behar bezalakoa izan dadin epe ertainean hartu beharreko erabakiak eta egin beharreko inbertsioak.

Beraz, plan berriak ezin du izan xehetasunez josiriko dokumentu itxia; bada, malgutasuna izan behar du datozen urteetan sortuko diren egoerei zentzuz eta tentuz erantzuteko. Hortaz, zein norabide hartu behar den zehaztu beharra dauka, baina azken helburua lortzeko bideen artean aukera egiteko abagunea eskainiz. Planaren izenak ezaugarri horien berri eman nahi du nolabait: «**Euskararen Plan Gidaria**» izango da, eta ez «Normalizaziorako Plana».

Ondoren zehaztuko diren Plan Gidari honen jarduerak honako hau dute xede: UPV/EHU Europako Unibertsitate Eremurako prestatzea eta eguneroko lanean aurrera egitea, helburua izanik bi komunitate linguistikoentzat gustukoa izango den unibertsitatea sortzea, eta bakoitzak egiten duen hizkuntza-aukera oztopo ez izatea unibertsitateko talde desberdinek beren eginkizunak betetzeko orduan, irakaskuntza, administrazio nahiz ikerketa-arloan.

Horixe da unibertsitateak berak ezarritako helburua. Alde batetik, UPV/EHUren Estatuetako 3. artikuluan (2004) modu orokorrean helburu nagusienetariko bat «euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan» dela finkatzen da. Eta, bestetik, zehaztuta dago Estatutueta 164. artikuluan: «UPV/EHUK euskararen eta gatzelaniaren erabilera

normal eta ofiziala bermatuko du, bere ahalmenez baliatuta eta dagozkion eginkizunen eremuan». Halaber, 165. artikulua, zehatzago adierazten du nola bermatuko den hori, honako eskubideak aipatuz: «Hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardutekoa; hizkuntza ofizialetako edozeinetan izatekoa harremanak UPV/EHUko organoekin; eskolak hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzekoa, bai eta eskolak edozeinetan ematekoa ere; lanak, probak eta azterketak hizkuntza ofizialetako edozeinetan ematekoa; ikerlanak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin, argitaratu eta defendatzekoa».

UPV/EHUren Estatutuetoako xedapen horiek hizkuntza-politikaren oinarritzko arauak erregulatzen dituen lege-sarearen barruan kokatzen dira. Gaztelaniaz zein euskaraz mintzatzen direnek eskubide berberak izatea du helburu lege-sare horrek. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutua (1979), Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarritzko Legea (1982), lege hori arautzen duen Dekretua (1997), eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea (2004). Azken horrek, bigarren artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak euskararen erabilera sustatzera bultzatzen ditu, «(...) irakaskuntza, ikerketa eta ekimen kulturalak koordinatuz (...), eta aipatutako unibertsitate-erakundeetako ikasle zein irakasleen arteko mugikortasunaren bidez (...). »

Helburu hori zehazten dute UPV/EHUren arautegiak zein Euskal Autonomia Erkidegoaren xedapen juridikoek, baina berori lortzeko neurriak hartu aurretik, gaur egun euskarak unibertsitatean bizi duen egoera diagnostikatu behar da. Ezingo ditugu etorkizun hurbilerako jomugak zehaztu, eta horietara ezarritako epeetan iristeko neurri errealistak proposatu, abiapuntua eza gututa ez bada. Ondorengo epigrafean hainbat datu eta joera esanguratsuren berri emango da.

2

Euskararen egoera Unibertsitatean

Euskara UPV/EHUn zein egoeratan dagoen aztertzen hasi aurretik, kontuan hartu behar dugu zein izan den euskararen egoeraren bilakaera euskal gizartean azken urteotan, argi baitago bilakaera hori lotuta dagoela euskarak Euskal Herriko Unibertsitatean bizi izan duen bilakaerarekin, unibertsitatea erakunde publikoa den aldetik. Ildo horretatik, beraz, lehenik eta behin esan behar da euskal gizartea, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dena behintzat, gero eta euskaldunagoa dela. 1981. urtean biztanleen bostetik batek baino ez zuen ulertzen eta hitz egiten euskaraz; hogeitaz beranduago, ordea, ia herenak ulertzen zuen eta hitz egiten zuen euskaraz.

Bi urte eta gehiagoko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, euskara-mailaren arabera (%)

	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	21,56	24,58	26,28	30,88	32,31
Ia euskaldunak	14,47	17,42	19,84	19,72	23,12
Erdaldunak	63,97	57,99	53,88	49,40	44,57
Bi urte edo gehiagoko bizilagunen kopurua	2.076.448	2.089.995	2.068.927	2.062.525	2.033.247

Iturria: Eustat: EAEko txosten sozioekonomikoa, 2006, www.eustat.es

Ikasleak

Datu estatistiko ugarien artetik hauxe azpimarratu nahi dugu, guztiz garrantzitsua baita unibertsitatearentzat: ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleen kopurua gero eta handiagoa da. Gertaera hori batez ere bi eremutan ikusten da. Batetik, azpimarratu behar da gero eta gehiago direla D ereduan edo B bezalako hezkuntza-eredu elebidunean matrikulatzen diren ikasleak.

**Ikasleak irakastereduaren arabera (%),
Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak**


	1997/98	2000/01	2004/05	2005/06	2006/07
A eredia	45,96	37,06	31,51	29,13	27,50
B eredia	18,22	21,08	21,19	21,57	21,47
D eredia	34,97	41,25	46,70	48,75	50,46
X eredia	0,84	0,61	0,56	0,55	0,56
Guztira	351.527	321.776	329.947	332.761	337.927

Iturria. Eustat, ibid.; 2006/07ko datuak: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Batxilergoan matrikulatutako ikasleen datuak oraindik esanguratsuagoak dira unibertsitateko hizkuntza-politika planifikatzeko. Izan ere, datu horiek erakusten dute zer aukeratu duten ikasleek unibertsitateara etorri aurretik. Eremu honetan ere joera aipatutakoa da, hain nabarmena izan ez arren: A ereduak indarra galdu du; B eredia oso gutxi aukeratu dute, eta ez da asko aldatu; eta D ereduak, berriz, puntu bat edo bi irabazten ditu urtetik urtera. Matrikulatutako ikasleen kopuruak behera egin duen arren 1998/99 eta 2005/06 ikasturteen artean (ia 12.000 ikasle gutxiago), D ereduan matrikulatutako ikasleen kopurua ez da ia aldatu.

Batxilergoko ikasleak irakastereduaren arabera

	A	%	B	%	D	%	X	%	Guztira
1997/1998	17.261	64,12	435	1,62	9.182	34,11	41	0,15	26.919
1998/1999	27.393	64,91	557	1,32	14.151	33,53	101	0,24	42.202
1999/2000	25.586	61,79	629	1,52	15.091	36,45	100	0,24	41.406
2000/2001	22.119	57,52	814	2,12	15.415	40,09	104	0,27	38.452
2001/2002	21.022	57,28	621	1,69	14.937	40,70	119	0,32	36.699
2002/2003	19.249	55,84	673	1,95	14.433	41,87	114	0,33	34.469
2003/2004	18.003	55,17	602	1,84	13.898	42,59	128	0,39	32.631
2004/2005	16.958	53,55	540	1,71	14.044	44,35	125	0,39	31.667
2005/2006	16.032	52,19	449	1,46	14.109	45,93	129	0,42	30.719
2006/2007	15.819	51,60	402	1,31	14.271	46,55	167	0,54	30.659




D ereduak unibertsitate aurreko hezkuntza-sisteman erakusten duen goranzko bide horrek jarraipena dauka Hautaprobetan. 2006. urtea mugarrria da euskarazko hezkuntza-sistemaren historian: urte horretan, lehen aldiz, ikasle gehiagok egin zituzten Hautaprobak euskaraz gaztelaniaz baino, eta uste izatekoa da zenbakiak gora egiten jarraituko dutela datozen urteetan.

Hautaprobetako ikasleen bilakaera hizkuntzaren arabera

Ikasturtea	Guztira	Euskaraz	Euskaraz (%)
1995/1996	17.209	4.681	27,20
1996/1997	16.598	4.785	28,83
1997/1998	15.715	4.842	30,81
1998/1999	15.657	5.108	32,62
1999/2000	13.539	4.797	35,43
2000/2001	12.235	4.650	38,01
2001/2002	11.234	5.070	45,13
2002/2003	10.500	4.868	46,36
2003/2004	10.365	4.951	47,77
2004/2005	9.772	4.893	50,07
2005/2006	10.223	5.083	49,72
2006/2007	8.132	4.223	51,90

Baina jakina da Hautaprobak euskaraz egin dituzten ikasle guztiek ez dutela egiten ondoren matrikula UPV/EHUko euskarazko talderen batean. Aldea hamar puntukoa izan ohi da, eta galeraren arrazoiak hainbat dira: ikasleek matrikula Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetan egitea, edo erkidegoko beste unibertsitate batean; ikasketa guztiak euskaraz egin ezin izatea titulazio batzuetan; gaztelaniazko taldea aukeratu duten unibertsitatara


sartu aurreko lagunekin ikasi nahi izatea; eta, baita ere, ikasketak amaitu ondoren lana giro nagusiki erdaldunean egin beharraren eragina. Dena dela, euskarak hezkuntza-sisteman erakutsi duen goranzko bidea ere islatzen da UPV/EHUn sartzen diren ikasle berrien estatistiketan.



Orain arte aipatu ditugun hiru iturriak grafiko berean batzen baditugu, argi ikusten da hiru kurben arteko paralelotasuna: euskarak gorantz egin du Batxilergoan eta Hautaprobetan, eta UPV/EHUn sartzen diren ikasle berrien kopuruak ere joera horri eusten dio, galera txiki bat egon arren.

**Batxilergoa (D eredua), Hautaprobak euskaraz
eta UPV/EHUko euskara taldeetako ikasle berriak**

Ikasturteak	Batxilergoa	Hautaprobak	Ikasle berriak
1997/98	%34,11	%30,81	%23,46
1998/99	%33,53	%32,62	%26,24
1999/00	%36,45	%35,43	%27,25
2000/01	%40,09	%38,01	%30,53
2001/02	%40,70	%45,13	%36,14
2002/03	%41,87	%46,36	%35,73
2003/04	%42,59	%47,77	%37,82
2004/05	%44,35	%50,07	%39,60
2005/06	%45,93	%49,72	%39,60
2006/07	%46,55	%51,90	%43,90



Beraz, joera horien proiektzioa eginez gero —eta urteko hazkunde-tasa bi puntukoa izango dela uste izanda—, esan dezakegu plan gidari honen indarraldiaren amaieran UPV/EHUko ikasle berrien %54 egongo dela matrikulatuta euskarazko taldeetan.

Datu horien irakurketatik ateratzen den ondorioa hauxe da, argi eta garbi: euskal gizarteak ahalegin handiagoa eskatzen dio UPV/EHUri euskarazko ikasketen eskaera gero eta handiagoari erantzuteko eta, segurutik, horixe eskatzen jarraituko du datozen urteetan.

Irakasleak

Gizartearen eskaerari erantzuteko, lehenik eta behin, irakasle elebidun kualifikatuak izan behar ditu unibertsitateak. UPV/EHU ahaleginak egiten ari den arren, ez du egin beharreko guztia egin irakasle eta ikertzaileen arteko *oreka linguistikoa* handiagoa izan dadin. Zenbakiak argi erakusten dute irakasle-ikertzaileen plantillaren bilakaerak ez duela eman aukerarik, neurri batean belaunaldien ezaugarriengatik, irakasle elebidunen kopuruak nabarmen egin dezan gora. Beste modu batean esanda, eta ikusita euskarazko taldeetan matrikulatzen diren ikasle berrien bilakaerari buruzko datuak, egiazta daiteke oraindik alde dagoela gorantz doan matrikularen eta irakasle elebidunen kopuruaren artean, azken horien bilakaera askoz mantsoagoa baita.

Irakasle-ikertzaileen arteko desoreka linguistikoa oraindik larriagoa da zientzia esperimentaletan eta ikasketa teknikoetan eta, bereziki, osasun-zientzietan (unibertsitateko batezbestekoa baino ehuneko askoz txikiagoa duten hiru arloak aipatzearen). Ondoren agertzen den taulako datuak dira arazoaren adierazle —plantillan finkatutako arduraldi osoko irakasle— ikertzaileak (I mota):


**Arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileak (I mota),
arlotu zientifikoaren eta hizkuntzaren arabera (2006)**

Arlo zientifikoa	Guztira	Elebidunak	Elebidunak (%)
Zientzia Esperimentalak	462	145	31,39
Ikasketa Teknikoak	795	225	28,30
Osasun Zientziak	221	52	23,53
Gizarte eta Lege Zientziak	1.037	461	44,46
Giza Zientziak	430	157	36,51
Guztira	2.945	1.040	35,31


Desoreka linguistiko horrek baldintzatu egiten du, eta larriki mugatu, euskarazko irakats-
eskaintza zabaltzeko egitasmoa. Baina, horrez gain, arazoak sortzen dira irakasle elebidun gu-
txi dituzten sailetan eta kaltetuak irakasle elebidun horiek izaten dira: zailtasunak bajak or-
dezkatzeko epe laburrean; denbora gutxiago doktorego-tesiak edo ikerketak egiteko; graduko
ikasketen eskolak eman beharra eta, ondorioz, graduondoko irakaskuntzarik ezin emana,
irakasgai desberdinak eman beharra...

Irakasleen eta ikertzaileen arteko desoreka linguistikoak badauka, gainera, beste ezaugarri
oso garrantzitsu bat: gutxi dira doktore-titulua daukaten irakasle elebidunak. Doktore-titulua
daukaten irakasleen %28 baino ez dira elebidunak. Irakasle elebidunen artean, irakasle dokto-
reak irakasleen erdia baino zertxobait gehiago dira; eta irakasle ez-elebidunen artean zenbaki
hori hamahiru puntu gorago dago.


Irakasle eta ikertzaile doktoreak (I mota), hizkuntzaren arabera (2006)



Irakasle eta ikertzaile elebidunak: doktore eta ez-doktoreen % (2006)



Irakasle eta ikertzaile ez-elebidunak: doktore eta ez-doktoreen % (2006)



Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle elebidun doktoreen kopuru eta ehuneko txiki hori da, beherago ikusiko dugun moduan, Euskararen Plan Gidarian kontuan hartu beharreko mugetako bat, euskararen erabilera normaldua lortu nahi badugu unibertsitateko esparru guztietan.

Hala ere, eta mugak muga, azken urteotan aurrerapauso oso garrantzitsuak eman dira euskarazko irakats-eskaintzaren esparruan. Ez dugu ahaztu behar UPV/EHU unibertsitate oso gaztea dela, orain dela mende laurden baino pixka bat lehenago sortu zena. UPV/EHU sortu zen urtean, 1980.ean, euskara erabat baztertuta zegoen; 2007. urtean, aldiz, enborreko eta nahitaezko kredituen bi heren inguru hizkuntza bietan eskaintzen ari gara. Portzentajea, baina, ez da altuagoa bi arrazoi hauengatik: batetik, estatistiketan filologiak agertzen direlako, eta ikasketa horien izaeragatik beragatik ezin dira eskaini irakasgai gehiago euskaraz; eta, bestetik, ahalegin gehiago egin behar izan ditugulako titulazio berriak abian jartzean, ia hasiera-hasieratik ekin behar izan diogulako titulazio horien «euskalduntzeari».

Euskarazko irakats-eskaintza jakintza arloen arabera (2005/06)

2005-2006		1. zikloko nahitaezkoak			2. zikloko nahitaezkoak			1. y 2. zikloko hautazkoak		
Arlo zientifikoa	Ikasketa planak	Eusk	%	Ikasketa planak	Eusk	%	Ikasketa planak	Eusk	%	
1 Zientzia Esperimentalak	1.229,50	1.116,0	90,77	736,5,0	203,0	27,56	670,0	480	71,64	
2 Ikasketa Teknikoak	5.852,25	3.145,0	53,74	1.506,0	347,0	23,04	1.057,5	661	62,51	
3 Osasun Zientziak	871,00	793,0	91,04	1.167,0	284,0	24,34	157,5	87	55,24	
4 Gizarte eta Lege Zientziak	4.731,00	4.513,5	95,40	1.523,0	1.037,5	68,12	1.215	2.120	174,49	
5 Giza Zientziak	1.370,50	1.118,0	81,58	1.092,5	908,0	83,11	981,0	2.283	232,72	
Guztira	14.054,25	10.685,5	76,03	6.025,0	2.779,5	46,13	4.081,0	5.631	137,98	

Administrazioa eta zerbitzuak

Irakaskuntzaren alorrean ahalegin handia egin arren, unibertsitate bat ez da elebiduna izango administrazio eta zerbitzuetako langileak lana bi hizkuntzetan egiteko gai ez badira.

Euskararen Normalizaziorako II. Plangintzak, 86/1997 Dekretuaren babesean, helburu handiak finkatu zituen eta, modu horretara, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen gutxieneko portzentajea (%40,74) bete ahal izan da.

Administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendako hizkuntza-eskakizunak, titulazio-taldearen arabera (2007ko urtarrila)

Titulazio-taldea	1. HE		2. HE		3. HE		4. HE	
	Guztira	Derrig.	Guztira	Derrig.	Guztira	Derrig.	Guztira	Derrig.
Doktoregoa, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura	0	0	0	0	155	53	10	8
Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa	0	0	25	7	113	35	0	0
Goi-mailako Batxilergoa, Lanbide Heziketa II	1	0	262	108	14	7	0	0
Eskola-graduatuak, Lanbide Heziketa I	9	0	501	232	0	0	0	0
Eskola-ziurtagiria	138	64	92	40	0	0	0	0
GUZTIRA 1.320	148		880		282		10	
Derrigortasun-data daukatenak GUZTIRA 554		64		387		95		8
Guztira (ehunekotan) %100	%11,21		%66,66		%21,36		%0,75	
Derrigortasun-datak (ehunekotan) %41,94		%4,84		%29,31		%7,19		%0,60

Oharra: itzultzaileen bost lanpostuak kontuan hartzeke, derrigortasun-data daukaten lanpostuak %41,59 dira.

**Taula: administrazio eta zerbitzuetako langileek egiaztatutako
hizkuntza-eskakizunak (2007ko urtarrila)**

Titulazio-taldea	Hizkuntza-eskakizuna					Guztira (taldeka)
	HE gabe	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE	
Doktoregoa, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura	92	14	23	59	16	204
Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa	68	11	24	48	2	153
Goi-mailako Batxilergoa edo Lanbide Heziketa II	134	12	34	26	1	207
Eskola-graduata, Lanbide Heziketa I	347	66	269	97	5	784
Eskola-ziurtagiria	150	29	96	27	1	303
GUZTIRA	791	132	446	257	25	1.651

Datuok ikusita, bi gauza azpimarra daitezke. Batetik, aurrerapauso handiak eman diren arren, 2007. urtean AZPkoen ia erdiak ez daukala egiaztatuta hizkuntza-eskakizuna; eta %17k baino ez dituztela egiaztatu 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak, hau da, hizkuntzaren erabilerak eskatzen dituen lau trebetasunen oinarritzko maila behintzat ziurtatzen dutenak (ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena). Ez da datu gehiagorik behar, beraz, agerian gera dadin zeintzuk diren egiturazko mugak; eta muga horiei aurre egin beharko die unibertsitateko kide guztientzat tratu berbera, hizkuntza-aukerarekin loturik egongo ez dena, bermatu nahi duen politikak.

Bestetik, eta hau da azpimarratu beharreko bigarren kontua, ez dugu ahaztu behar hizkuntza-eskakizunak nahitaez egiaztatu behar direla, baina hori ez dela nahikoa euskararen erabilera bultzatzeko. Azken urteotako datu estatistiko guztiek erakusten duten errealitate soziolinguistikoa euskaldunen kopuruak gora egin du baina horrek, ordea, ez du esan nahi euskararen erabilerak gora egin duenik eguneroko bizitzan. Beraz, UPV/EHUri buruzko datu estatistikorik eduki ez arren, uste izatekoa da unibertsitatea ez dela salbuespena izango euskal gizartearen ikuspegi soziolinguistikoaren barruan.

Horrexegatik, administrazio eta zerbitzuen esparruko hizkuntza-politikak bi arloetan hartu behar ditu neurriak, eta baldintzak jarri aurrerapausoak eman daitezen bai hizkuntza-gaitasuna bereganatzeko prozesuan bai hizkuntzaren erabileran.

Ikasmateriala

Unibertsitate elebidunen oinarrietako bat ikasmaterial elebiduna da, hots, eskolak ematen diren hizkuntzetan idatzitako materiala. UPV/EHUK ahalegin handia egin du azken urteotan, hala Euskara Errektoreordetzaren eskutik nola Argitalpen Zerbitzuaren eskutik, eskuliburuak eta bestelako ikasmateriala euskaraz argitara emateko.

Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratutako liburuak dira, argitaletxeek, Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskal Herriko beste unibertsitateek argitaratutako liburuekin batera, ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleek erabiltzen duten ikasmaterialaren corpusa.

Azken hamarkadan UPV/EHUUn argitaratu diren liburuen erdia baino zertxobait gutxiago euskaraz eman dira argitara, direla itzulitako eskuliburuak direla euskaraz idatzitako lanak.

Argitalpenen bilakaera hizkuntzaren arabera

Urtea	Liburuak			Aldizkariak		
	Gaztelaniaz	Euskaraz	Beste hizkuntza batzuetan	Gaztelaniaz	Euskaraz	Beste hizkuntzetan
1997	56,83	41,88	1,28	59,37	15,62	25,00
1998	61,07	38,62	0,29	60,00	10,00	30,00
1999	55,16	44,51	0,32	51,85	14,81	33,33
2000	56,38	39,56	4,04	56,52	13,04	30,43
2001	66,85	33,15	0,00	50,00	17,85	32,15
2002	58,76	40,44	0,80	48,38	22,58	29,04
2003	53,76	45,15	1,07	62,96	14,81	22,22
2004	55,01	44,05	0,93	59,37	18,75	21,87
2005	55,93	43,34	0,73	60,00	16,66	23,33
2006	58,41	41,35	0,24	50,00	20,83	29,16

Liburuak argitaratzeaz gain —horietako asko oinarrizko testuen itzulpenak dira, jatorriz beste hizkuntza batean argitaratuak—, errektoreordetzak lana egin du UPV/EHUko irakasleek ikasmateriala sor dezaten. Deialdi horretan parte hartu duten irakasleen kopurua igo egin da azken urteetan, eta horren emaitza dira errektoreordetzaren web orrian irakasleen eta ikasleen eskura dauden hainbat argitalpen elektroniko (ISBN zenbakia daukatenak). 2002 eta 2006. urteen artean 18 liburu eman dira argitara formatu elektronikoan.

Dena dela, bidean aurrera egin den arren, ezin da esan euskarazko ikasmaterialaren egoera ona denik. Kontuan izanda, batetik, premiak oso handiak direla oraindik osasun-zientziak eta ikasketa teknikoak moduko arlo zientifikoetan eta, bestetik, ikasmaterial berria sortu behar dela eta egungoak egokitu egin behar direla Europako Unibertsitate Eremuaren eskakizun pedagogiko eta didaktikoetara, argi dago haxe dela Euskararen Plan Gidarian jaso beharreko alderdi nagusietako bat.

3

Helburuak, estrategiak eta ekimenak: Planaren laburpena

Euskarak UPV/EHUn bizi duen egoerari buruzko diagnostiko laburra egin ondoren, datozen bost urteetako Plan Gidariaren helburu, estrategia eta ekimen garrantzitsuenak azalduko ditugu jarraian. Helburu nagusiak lehenengo atalean adierazitakoak dira. Unibertsitateko esparruekin zerikusia daukaten helburuak, berriz, ondoren agertzen diren ataletan azalduko ditugu zehatzago, bai eta horiek lortzeko estrategiak eta ekimenak ere.

Helburu nagusiak

1. Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko trantsizio-aldian Euskal Herriko Unibertsitatean indarrean egongo den hizkuntza-politikaren ildo nagusiak finkatzea, unibertsitateko kide guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, hautatu duten erkidegoko hizkuntza ofiziala bata zein bestea izanda, euskara unibertsitatearen kideen hizkuntza jaso izatea eta euskararen normalkuntzarako unibertsitateak ekarpenak egitea bere beregizko esparruan, titulazioetan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan.

2. Unibertsitario euskaldunen erkidegoa sendotzea eta trinkotzea izango da Plan honen bigarren helburu nagusia. Eta horretarako neurriak jartzea euskararen egungo egoera sendotu eta hobetzeko irakats-eskaintzan, irakasle eta ikertzaileen plantillan, administrazio eta

zerbitzuetako langileen plantillan, ikerketaren zabalkundean eta, baita ere, eguneroko erabileran.

3. Eukal Herriko Unibertsitateak, euskararen garapen eta normalizazioari begira, erakunde aintzindaria izan behar du. UPV/EHUK arreta berezia jarriko dio euskararen corpusaren berri-tze eta eraberritzeari. Hartuko dituen neurrien artean izango dira terminologiagintza sustatzea eta laguntzea, sormena bultzatzea eta babestea eta hizkuntza maila jaso lantzea.

Helburu espezifikoak

1. Administrazio eta zerbitzuetako langileak:

- 1.1. Hizkuntza eskakizunak egiaztatu dituzten langile gehiago egon daitezela jendaurreko lanpostuetan.
- 1.2. Atal elebidunetan erabilera planak garatzea.
- 1.3. AZPkoen hizkuntza-prestakuntzarako baldintzak hobetzea.
- 1.4. IVAPekin elkarlanean aritzea, hizkuntza-prestakuntzarako politika koordinatzeko.

2. Euskarazko irakats-eskaintza:

- 2.1. Enborreko eta nahitaezko kreditu guztiak euskaraz eskaintzea egungo titulazioetan, baldin eta eskaera nahikoa bada.
- 2.2. Etorkizuneko graduak titulatuak euskaraz eskaintzea, baldin eta eskaera nahikoa bada.
- 2.3. Euskararen presentzia nabaria bermatzea etorkizuneko graduondoko ikasketetan.
- 2.4. Irakaskuntzaren kalitate linguistikoa bermatzea.
- 2.5. Ikasleen berariazko gaitasun linguistiko-komunikatiboa bermatzea.

3. Irakasle-ikertzaileak:

- 3.1. Irakasleen eta ikertzaileen plantillako irakasle elebidunen kopurua gutxienez %43ra igotzea.
- 3.2. Irakasleen eta ikertzaileen arteko desoreka linguistikoa zuzentzea behar den sail guztietan.
- 3.3. Doktore-titulua daukaten irakasle eta ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea.

4. Ikasmaterialia:
 - 4.1. Eskuliburuen itzulpenak sustatzea, batez ere premia handiak dituzten arloetan, baina beste arloak baztertu gabe.
 - 4.2. Unibertsitateko irakasleek ikasmateriala sor dezatela bultzatzea, edo sortutakoa berrikusi eta eguneratzea.
5. Hizkuntza-prestakuntza:
 - 5.1. Hobekuntza-ikastaroak eskaintzea irakasle eta ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuertako langileei.
 - 5.2. «Prestakuntza tailerrak» eratzea, esperientzia pilotu moduan, gutxienez unibertsitateko hiru ikastegitan.
 - 5.3. «Komunikatzeko gaitasuna» gaiaren inguruko graduondoko programa ofiziala bultzatzea.
 - 5.4. EHULKU zerbitzu telematikoa erabiltzeko bidea erraztea ikasleei.
6. Ikerketa eta zabalkundea:
 - 6.1. Zientzia-dibulgazioko jardunaldiak antolatzea aldizka, «Zientzia Irakurle Orentzat (ZIO)» gaiaren gainean.
 - 6.2. Zientzia-dibulgazioko aldizkari bat sortzea, batez ere unibertsitate aurreko ikasleei zuzendua.
 - 6.3. Euskarazko tesiak sustatzea eta ikerketaren zabalkuntza bultzatzea.
7. Euskara erabiltzea unibertsitate barruko zein kanpoko komunikazioan:
 - 7.1. Benetako elebitasuna bermatzea web orri berrian eta aplikazio informatikoetan.
 - 7.2. Bulego telematiko bat jartzea, euskarak unibertsitatean daukan erabilerari buruzko proposamenak eta keak aurkeztu eta bideratzeko («Euskal Hiztunentzako Bulegoa»).
 - 7.3. Hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea kanpoko enpresek edo erakundeek eskainitako zerbitzuertan.
8. Euskara Zerbitzuaren egitura indartzea.
9. Euskal Herriko beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana sustatzea.

4

Jarduera eremuak

4.1. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak: hizkuntza-eskakizunak, erabilera-planak eta ikastaroak


Euskararen ikaskuntza sustatzea

Aurreko epigrafeetako batean egiaztatu dugunez, UPV/EHUK dituen egiturazko arazoe-tako bat eskariaren eta eskaintzaren artean dagoen desoreka da; izan ere, euskarazko ikaske-ten eskariak gorantz egin duen bitartean unibertsitateak dauzkan giza baliabideen (irakaskun-tzakoak nahiz bestelakoak) bilakaera askoz mantsoagoa izan da.

AZPkoei dagokienez, euskara ikasteko liberazioak da hizkuntza eskakizunak egiaztatuta di-tuzten langileen kopurua handitzeko tresna nagusietako bat. Helburu hori lortzeko, lanorduen barruan ikastaroetara joateko dauden bi liberazio-zerrendetan 5 orduko 30 liberazio eta 2 or-duko 180 eman izan dira azken urteotan. Unean uneko doikuntzak salbu, kupo horiek bere horretan mantendu dira, nahiz eta azken hamar urteotan AZPkoen plantilla nabarmenki han-ditu den.

AZPkoen plantillak izandako gehikuntza (1997-2006)

Urtea	Langile kopurua	Gehikuntza (%)
1997	1.151	
1998	1.215 (+64)	5,27
1999	1.253 (+38)	3,03
2000	1.284 (+31)	2,41
2001	1.353 (+69)	5,10
2002	1.389 (+36)	2,60
2003	1.464 (+75)	5,12
2004	1.481 (+17)	1,15
2005	1.574 (+93)	6,00
2006	1.650 (+76)	4,61
GUZTIRA	499	Gehikuntzaren urteko batezbestekoa: 3,92%



Hortaz, eta talde zabalago bati euskalduntzeko aukera emateko asmoz, **zerrenda bietako liberazio-kopurua handitu egingo da**, 5 orduko liberazioak **30** izatetik **40** izatera pasatuko dira eta bi orduko liberazioak, berriz, **180**tik **220ra**. Euskara ikasteko 5 orduko liberazioetatik baliatzen diren langileek konpromisoa hartu behar dute euren lanpostuei derrigortasun data jartzeko —lanpostuak lehenagotik datarik ez balu, jakina— dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu ondoren.

UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiek eska ditzakete euskara ikasteko liberazioak. Modu honetara, euskalduntzean aurrera egiten jarraitu nahi duten administrazio eta zerbitzuetako langileek horretarako aukera izango dute.

3. HE lortzea

Ikastaldiaren ondoren 2. eskakizuna egiaztatzen dutenak euskalduntzat —«euskara dutenak», hitzez hitz— jotzen dira, nahiz eta jakin badakigu 2. HE lortzeko beharrezko gaitasunek ulermen, mintzamen eta irakurmenaren oinarritzko maila baino ez dutela barne hartzen. Gainera, idazmenean behe-mailako gaitasuna baino ez da eskatzen. Hortaz, esan dezakegu, 3. HE dela euskaraz jariootasunez eta naturaltasunez jarduteko gaitasuna egiaztatzeko bermerik handienak eskaintzen dituen eskakizuna.

Orain arte, beren lanpostuari ezarritako 2. HE egiaztatuta zuten AZPko langileek ez zeukaten, hala nahi izanez gero, lanorduetan euskara ikasten jarraitzeko aukerarik, eta beren euskara-maila hobetzeko aisialdiaz baliatzera behartuta zeuden.

Alabaina, gure ustez, elebitasun-maila handiagoa izatea lortu nahi duen erakunde honek esparru horretan ere politika proaktiboagoa bultzatu beharko luke, lanpostuak ezarrita daukan hizkuntza-eskakizuna beteta izan arren beren euskara hobetzen jarraitzeko prest daudenei lagundu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, liberazioen beste **zerrenda** bat prestatuko da, **hirugarrena**, alegia. Aipatutako zerrenda goian azaldutako egoeran dauden **20** langileri zuzenduta egongo da, lanorduetan beteko da eta bi ordukoa izango da.

Liberatuta egongo diren langileak hautatzerakoan, gainerako liberazioetan ezartzen diren irizpideak erabiliko dira (lan-lotura: karrerako funtzionarioak, hutsik dauden lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak; atal mota: AE, A, B, C eta D; hutsik dauden lanpostuak betetzen ari ez diren gainerako langileak). Salbuespen bakarra, jakina, derrigortasun-data izango da; izan ere, lanpostuak ezarrita daukan eskakizuna dagoeneko egiaztatu duten langileez ari gara.

Dena den, egia bada ere unibertsitateak, erakunde publikoa den aldetik, interes handia duela bere langileen hizkuntza-prestakuntza hobetzeko, 3. HE lortzera bideratutako liberazio hauek ezin dira inolaz ere liberatutakoan lankideen lan-egoeraren kalterako izan. Horregatik, lankide horiei laguntzeko kontratazioak egiteko aukera aztertuko da, nagusiak premia hori dagoela justifikatzen badu.

AZPkoen prestakuntza

AZPkoentzako prestakuntza-ikastaro bereziak antolatuko dira hiru campusetan. Gainera, beherago azalduko diren irizpideen araberrako erabilera-planen ezarpena osatzeko asmoz, erabilera-ikastaro bereziak antolatuko dira, orain arte egindakoen emaitzak aztertuz. Ikastaro horien bidez erantzuna emango zaie unibertsitatean lan egiten duten kidegoen premia zehatzei.

Hizkuntza-politikaren koordinazio hobe baterantz

Denok dakigun bezala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) herri-administratioko langile guztientzako hizkuntza-programak eskaini eta antolatzeaz arduratzen da.

Hain zuzen ere, UPV/EHUko AZPko langileei dagokionez, programa horien eraginkortasuna areagotzeko xedearekin, unibertsitateak batzorde misto bat sortzea proposatuko dio HAEEko zuzendaritzari. Aipatutako batzordearen zereginak hauek izango lirarteke: ikastaroen jarraipena egitea, azterketen emaitzak ebaluatzea, ordu-kredituaren ezarpena balioestea eta, hala badagokio, programa horien emaitza hobetzeko neurriak adostea.

Hauek izango dira batzordearen osakideak: HAEEko ordezkari bat, UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzako beste bat eta unibertsitateko AZPkoen ordezkari sindikal bat. AZPkoen ordezkari hori urtero txandakatuko da sindikatuen artean. Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da.

Jendaurreko arreta elebiduna ematea

Unibertsitatea, baina, ezin da konformatu lehen aipatutako neurrien bidez AZPkoen hizkuntza-prestakuntza hobetzearekin; harantzago jo behar du. Izan ere, erabaki estrukturalak ere hartu behar ditu, jendaurreko lanpostuetan hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dituzten langile gehiago egon daitezela bermatzeko.

Gorago esan dugun bezala, euskarazko ikasketen eskaria gorantz doan bitartean giza baliabideen bilakaera mantsoagoa da, eta desoreka horrek hainbat ondorio izan ditu, besteak beste, administrazio eta zerbitzueta langileen arloan, Lanpostuen Zerrendan elebidunak ez diren jendaurreko lanpostu asko eta asko baitaude oraindik. Hizkuntza biek tratu bera jaso behar dutela xedatuta dago UPV/EHUko Estatutuetan, eta hori betetzeko ezinbestekoa da gaur egungo egoera hobetzea.

Neurri horiek bi arlori dagozkie: batetik, lanpostuen zerrendan agertzen diren lanpostuei eta, bestetik, lanpostuen zerrendan agertzen ez diren aldi baterako lanpostuei. Dena dela, argi dago arlo horietarako proposatuko diren neurriek helburu bera izan behar dutela, hau da, euskararen erabilera bermatzea unibertsitatean. Beraz, lehenik eta behin, **lanpostuen zerrendan agertzen ez diren aldi baterako premiak bete behar direnean, eta jendaurreko lanpostuak badiira, kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna eskatuko da.**

Bigarrenik, kontuan hartu behar da atezain nagusiak eta menpekoak izaten direla, LZko lanpostuen artean, jendearekin harreman zuzenena dutenak.

Hori dela eta, lanpostu horietan guztietan —salbuetsita dauden langileek betetakoak izan ezik, noski— euskararen oinarrizko ezagutza egiaztatu izana eska dadin proposatzen du Plan Gidariak, eta helburu hori lortzeko bost urteko epea ezartzea proposatzen da. Izan ere, modu horretan, herritarrei beraiek aukeratzen duten hizkuntzan emango zaie arreta.

Hartara, oraindik derrigortasun-datarik ezarrita ez duten atezain nagusi eta menpekoen lanpostu guztiei ezarri egingo zaie. Horietako batzuek plangintza-aldiaren hasierako data izango dute eta beste batzuk, berriz, amaierakoa.

Horiek horrela, guztira 112 lanposturi jarriko zaie derrigortasun-data. Horietatik 51k 2008ko ur-tarrileko data izango dute eta gainerakoek, hots, 61ek, 2012koa.

Hona hemen eragindako lanpostuen zerrenda:

LZko lanpostuak: menpekoak eta atezain nagusiak

		3	N	18880	Segurtasuna eta Legeria	7,5	08/09
		3	N	18875	Ingurumen Ingeniaritza	6	07/08
		3	N	18876	Proiektu eta Lanen Plangintza eta Gestioa	9	08/09
		3	E	18879	Proiektuak	6	08/09
		3	E	18881	Hiri-zerbitzuak	10	07/08
		3	N	18877	Eraiketa Prozesuak eta Makineria	6	08/09
3	E	18874	Garraioen Azpiegitura	12	08/09		
GIPUZKOA-EIBAR							
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	Industria ing. tek., Industria Elekt. esp. (Eibar) (Gipuzkoa)	2	E	19030	Enpresen Administrazioa eta Ekoizpenaren Antolakuntza	3,2	07/08
		2	E	19028	Sistema Mekanikoak	3,2	08/09
		3	E	19103	Bulego Teknikoa	6,4	07/08
		3	E	19036	Instrumentazio Elektronikoa	9,6	07/08
	Industria ing. tek., Mekanika esp. (Eibar) (Gipuzkoa)	2	E	19151	Enpresen Administrazioa eta Ekoizpenaren Antolakuntza	6,4	07/08
		2	E	19154	Ingeniaritza Termikoa	13	07/08
		2	E	19153	Ingeniaritza Jariakor Mekanikoa	13	07/08
		3	E	19160	Teknologia Mekanikoa	6	08/09

		Maila	Mota			Kred	Ikasturtea
BIZKAIA							
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Fisikan lizentziatua (Bizkaia)	4	N	17393	Esperimentazio Metodoak I	6	08/09
		4	E	17388	Egoera Solidoaren Fisikoa	7,5	08/09
		4	E	17389	Fisika Estatistikoa	7,5	08/09
		4	E	17387	Elektrodinamika Klasikoa	6	07/08
		4	E	17390	Fisika Nuklearra eta Partikulena	7,5	07/08
		4	E	17391	Mekanika Kuantikoa	7,5	07/08
		4	E	17392	Mekanika Teorikoa	6	07/08
		5	N	17396	Esperimentazio Metodoak II	4,5	08/09
	5	E	17394	Elektronika I	6	07/08	
	5	E	17395	Elektronika II	6	07/08	
	Geologian lizentziatua (Bizkaia)	4	E	16191	Geofisika	9	07/08
		4	N	16196	Ingurune Sedimentarioak	7,5	07/08
		5	E	16201	Tektonika Konparatua	6	07/08
		5	E	16197	Arroen Analisia eta Geologia Historikoa	7,5	07/08
	Kimikan lizentziatua	5	E	20025	Kimika Organikoko Esperimentazioa	12	07/08
5		E	20019	Materialen Zientzia	9	08/09	
5		E	20022	Kimika Analitikoko Esperimentazioa	12	07/08	
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Merkatuen Ikerketa eta Tekniketan lizentziatua (2. zikloa) (Bizkaia)	1	N	11222	Gizarte Zientzien arloko Ikerketetarako Metodologia	6	07/08
		1	E	11221	Espainiako Enpresen Egitura	6	07/08
		1	N	11219	Merkatuari Aplikaturiko Ekonometria	6	07/08
		1	E	11220	Merkatuari Aplikaturiko Estatistika	6	07/08
		1	N	11224	Prezioen Teoria	6	07/08
		1	E	11223	Merkatuen Teoria	6	07/08
		1	N	11216	Merkatuaren eta Kontsumitzaileen Zuzenbidea	6	07/08
		1	E	11215	Produktu eta Prezioaren Erabakiak	6	07/08
		1	E	11217	Merkatu Zuzendaritza	6	07/08
		1	E	11218	Merkataritza Banaketa	6	07/08
		2	E	11233	Kontsumoaren Psikosoziologia	6	07/08
		2	N	11234	Nazioarteko Ekonomi Harremanak	6	07/08

		Maila	Mota			Kred	Ikasturtea
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (kontinuazioa)	Merkatuen Ikerketa eta Tekniketan lizentziatua (2. zikloa) (Bizkaia) (kontinuazioa)	2	E	11232	Merkatuari Aplikaturiko Metodo Kuantitatiboak	6	07/08
		2	N	11227	Salmenta Zuzendaritza	6	08/09
		2	N	11231	Nazioarteko Marketina	6	08/09
		2	E	11225	Merkatu Ikerkuntzaren Aplikazioak	6	08/09
		2	E	11226	Komunikazioa eta Publizitatea	6	08/09
		2	E	11229	Merkatu Ikerkuntza: Sarrera	6	08/09
		2	E	11230	Marketin Aurreratua	6	08/09
		2	E	11228	Enpresaren Ekonomia eta Zuzendaritza Estrategikoa	6	07/08
Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola	Erizaintzan diplomatua (Bizkaia)	3	E	15948	Erizaintza Zerbitzuen Administrazioa	30	07/08
		3	E	15951	Legeria eta Etika Profesionala	7,5	07/08
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	Gestioaren Informatikan ing. tek. (Bizkaia)	1	E	18021	Enpresa Antolakuntza eta Gestiorako Teknikak	15	07/08
		1	E	18015	Analisi Matematikoa	12	07/08
		1	E	18018	Matematika Diskretua eta Aljebra	11	07/08
		1	E	18019	Programazioaren Metodologia	9	07/08
		1	E	18020	Programazioa I	13	07/08
		1	E	18016	Sistema Digitalen Diseinua	7,5	07/08
		1	E	18017	Konputagailuen Egitura I	7,5	07/08
		2	N	18022	Enpresa Gestioaren Gehipena	9	08/09
		2	N	18028	Ikerkuntza Eragilea	4,5	08/09
		2	E	18023	Estatistika	9	08/09
		2	E	18025	Datuen Egitura eta Algoritmoak	9	07/08
		2	E	18026	Datu Baseen Oinarriak	6	07/08
		2	E	18027	Sistema Eragileetarako Sarrera	9	07/08
		2	E	18029	Programazioa II	11	07/08
		2	N	18030	Sareak	12	08/09
		2	E	18024	Konputagailuen Egitura II	8	08/09
		3	N	18032	Datu Baseen Garapena	8	07/08
3	E	18031	Sistema Eragileen Gehipena	6	07/08		
3	E	18033	Softwarearen Ingeniaritza	12	07/08		
3	E	18035	Informazio-sistemak	7,5	07/08		

		Maila	Mota		Kred	Ikasturtea	
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	Meatzeen ing. tek., Energia Baliabide, Erregai eta Lehergailuak esp. (Bizkaia)	2	E	11849	Uso de Explosivos	2,3	07/08
		1	E	17306	Geologia	7,7	07/08
		1	E	17304	Fisika I	6	07/08
		1	E	17305	Fisika II	6	07/08
		1	N	17313	Kimika	7,5	07/08
		1	N	17311	Mekanika	4,5	07/08
		1	E	17312	Jariakinen Mekanika	7	07/08
		2	E	17318	Eraikuntza I	7,5	08/09
		2	E	17320	Lurzoruaren Ingeniaritza eta Morfologia	6,4	07/08
		2	E	17324	Egituren Teoria	9	07/08
		2	E	17319	Ingeniaritza Hidraulikoa eta Hidrologikoa	6,8	07/08
		2	E	17317	Materialen Zientzia	7,5	07/08
		2	E	17322	Eraikuntza Materialak	6	07/08
		2	N	17321	Makineria eta Bitarteko Lagungarriak	6	07/08
		2	N	17316	Topografi Aplikazioak	4,5	08/09
		2	E	17325	Topografia	4,5	08/09
		2	N	17323	Zaharbertze eta Zuzentzeko Teknikak	6	08/09
		3	E	17328	Ekonomia	9	08/09
		3	N	17326	Ura eta Ingurumena	4,5	07/08
		3	E	17334	Proiektuak	6	07/08
		3	N	17332	Instalazio Elektrokoak eta Argiztapena	9	08/09
		3	N	17329	Etxegintza	4,5	08/09
		3	E	17327	Eraikuntza II	7,5	08/09
		3	E	17330	Garraioen Azpiegitura I	4,5	08/09
		3	E	17331	Garraioen Azpiegitura II	6	08/09
		3	E	17336	Egituren Teknologia I	4,5	08/09
		3	E	17337	Egituren Teknologia II	4,5	08/09
		3	N	17335	Portuak eta Itsas Lanak	4,5	07/08

Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan eskaintzen den Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa (Telekomunikazio Sistemak) titulazioari dagokionez, 2009/10 ikasturtean osatuko da euskaraz.

Medikuntza eta Odontologia ikasketen berezitasunak direla eta, kronograma horretan ez dira agertzen titulazio horiei dagozkien aurreikuspenak.

Dakigun legez, zaila da irakasgai klinikoak eskaintzeko plazak betetzea; izan ere, plaza horiek betetzeko hautagaiak honako baldintzak bete behar dituzte: prestakuntza egokia izatea, euskaldunak izatea eta, gainera, kasuan kasuko irakasgaiari dagokion espezialitateko mediku-plaza edukitzea hartarako zehaztutako ospitaletan.

Antzeko zerbait gertatzen da Odontologiako irakasleen plazekin: medikuntzako ziklo klinikoan bezala, oso zaila egiten da aditu elebidunak aurkitzea eta plazak betetzea.

Dena dela, Osakidetzarekin izango dugun hitzarmenak ziurrenik erraztu egingo du lan hori; beraz, arrazoizkoa da euskalduntze-prozesuaren norainokoari eta erritmoari buruzko erabaki sendoak atzeratzea, gaur egun negoziatzen ari garen hitzarmen hori indarrean sartu arte.

Bitartean, alde batetik, malgutasunez eta bizkortasunez jokatu beharko dugu, bigarren zikloaren euskalduntzean aurrera egiteko aurkezten zaizkigun aukera zehatzak aprobeztatzeko.

Beste alde batetik, Medikuntza eta Odontologiako lehen zikloko helburuak zehaz daitezke; are gehiago, zehaztu egin behar dira.

**Medikuntza: bigarren eta hirugarren mailak bitan banatzea,
honako irakasgaiak eskaintzeko:**

2. maila 07/08	3. maila 08/09
— Giza Anatomia II	— Anatomia Patologiko Orokorra
— Giza Fisiologia	— Farmakologia Orokorra
— Giza Elikadura	— Kirurgiaren Oinarriak
— Giza Histologia Orokorra	— Erradiologia eta Medikuntza Fisiko Orokorrak
— Giza Histologia Berezia	— Mikrobiologia Medikoa I
— Immunologia Orokorra	— Patologia Orokorra eta Propedeutika Klinikoa
	— Psikologia Medikoa

**Odontologia: lehen zikloko euskalduntzea burutzea,
honako irakasgaiak eskainiz:**

1. maila 07/08	2. maila 08/09
— Biologia Zelularra	— Anatomia Patologiko Orokorra
— Giza Histologia	— Material Odontologikoak
	— Patologia Kirurgikoa
	— Pediatria
	— Patologia Medikua

Medikuntza eta Odontologia ikasketei buruzko digresio honen ondoren, heldu diezaiegun orain gainerako titulazioei.

Aurreko kronograman zehaztu dugu zein titulaziotan zabalduko den euskarazko irakats-eskaintza, eta zein irakasgaitan izango duen eragina euskarazko irakats-eskaintza zabaltzeak. Dena den, kontuan hartu behar da Plan honek irakasle eta ikertzaileen arloan hainbat neurri aurreikusten duela. Neurri horien helburua da sailen plantillak orekatzea ikuspuntu linguis-tiko batetik. Horren ondorioz, sail horietariko bat baino gehiagok aukera izango du euskarazko bere irakats-eskaintza zabaltzeko eta hemen zehaztuta ez dauden irakasgaiak ere eskaintzeko. Horrela, irakats-eskaintza —hautazko irakasgaiak barne— zabalduz, helburu hauek gaituko lirateke.

Bost urtetan euskaldundu beharreko titulazio horiez gain, gaur egun beste hiru gazte-laniaz eskaintzen dira, eta zalantzan jartzen dugu horiek euskalduntzea komeni den ala ez, azken urtetan matrikulazioa asko jaitsi baita kasurik gehienetan. Alabaina, badira beste arrazoi batzuk horien euskalduntzea erabat ez baztertzeko. Horregatik proposatzen dugu 2009/10 ikasturte hasieran titulazio horiek berrikustea eta euskalduntzen hastea, matrikulazioaren bilakaerak hala eskatzen badu.

Titulazio horien zerrenda ematen dugu ondoren, beren berezitasunei buruzko ohar laburrekin batera:

Matrikulazioaren bilakaeraren arabera eta beste arazo zehatz batzuen arabera euskaldundu beharreko titulazioak

Bizkaiko Campusa

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

— Biokimikan lizentziatua, 2. zikloa:

Datuak: nahitaezko 102 kreditutatik, 51 euskaraz; matrikulazioa jaitsi da: ikasle berriak 05/06 ikasturtean, 50; 06/07 ikasturtean, 37. Alabaina, euskara-faktorea 0,35 da. Euskaldundu beharreko 8 irakasgaiek gainditzen dute 15 ikasleko kopurua (2005/06ko matrikulazioa kontuan izanik). Gainera: graduiko ikasketa izango da!

— Ingeniari kimikoa:

Datuak: Lehen zikloa ia euskaldunduta dago; 2. zikloan, nahitaezko 78 kreditutatik 42 euskaraz eskaintzen dira. Ingeniaritzako Goi Eskolan ere eskaintzen da titulazioa, baina gaztelaniaz. Matrikulazio eskasa Zientzietan; ikasle berriak 05/06 ikasturtean, 34; 06/07 ikasturtean, 31. Euskara-faktorea; 0,56. Gaur egungo matrikulazioarekin, erraz gaintuko litzateke gutxieneko 15 ikasleko kopurua. Alabaina, datozen urteetan matrikulazioak jaisten jarraituko balu, hori zalantzarriagoa litzateke.

Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa

— Telekomunikazioan ingeniari teknikoa, Telematika espezialitatea:

Datuak: gorago bezala. Ikasle berriak 05/06 ikasturtean, 72; 06/07 ikasturtean, 48. Euskara-faktorea; 0,43. 16 irakasgaietatik 10 egongo lirateke 15 ikasleko kopuruaren gaitetik.

— Industria Antolakuntzan ingeniaria (2. zikloa):

Datuak: Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan, Eskola Politeknikoan eta Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan eskaintzen da, euskaldundu gabe guztietan. Matrikulazioari buruzko datuak: Bilbon 103 ikasle berri 2005/06 ikasturtean, eta 69 ikasle berri 06/07 ikasturtean (2006/07 ikasturteko beherakada gogorra gorabehera, matrikulazio gehienak bertan egiten dira); Eskola Politeknikoan 71 ikasle berri 2005/06 ikasturtean,

eta 65 ikasle berri 06/07 ikasturtean; Gasteizen 67 ikasle berri 2005/06 ikasturtean, eta 60 ikasle berri 06/07 ikasturtean. Euskara-faktorea: 0,35. Irakasgai batean izan ezik, beste guztietan gaindituko litzateke (batzuetan erraz, gainera) 15 ikasleko matrikulazioa.

Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa

— Itsasontzi-makinetan diplomatua:

Datuak: irakasgai batzuk Itsas Nabigazioan Diplomatua ikasketetakoak ere badira. Ikasle berriak 2005/06 ikasturtean, 53; 2006/07 ikasturtean, 27. Euskara-faktorea; 0,25. Euskaldundu beharreko 24 irakasgaietatik 3 iritsiko lirateke 15 ikasle baino gehiago izatera.

4.2.2. Euskarazko irakats eskaintza Europako Unibertsitate Eremu Berrian

Lerro hauek idazteko unean (2007ko negua) dagoeneko ezagutzen ditugu Europako Unibertsitate Eremua ezartzeko jarraituko diren ildo nagusiak, baina Estatu espainiarrean zehazki nola ezarriko den oraindik ez dakigu, zalantzak ziurtasunak baino gehiago baitira. Ezarpen-erritmoari dagokionez ere ezin da aurreikuspen errealistatik egin; izan ere, 2010. urterako ezarri zen epemuga Pragako Adierazpenean (2001), baina kasu guztietan ezin da ziur esan epe hori beteko denik.

Beraz, unibertsitateek erabaki behar dute zein titulazio eskainiko dituzten eremu berri horretan, eta dagozkien titulazioen gidak egin. Hasiera batean eztabaida handia piztu zuen kontua izan bazen ere, azkenik erabaki da zein izango den graduiko ikasketak berrien iraupena: hain zuzen ere, 4 urtekoa, eta ez 3 urtekoa.

Aldi baterako izango den egoera honetan zalantza handiak eta ziurtasun txikiak ditugula ikusita, Euskararen Plan Gidariak ezin ditu erabaki oso zehatzak hartu bere helburuak eta estrategiak finkatzeko.

Beraz, planaren helburu nagusia ezin da izan euskaraz eskaini beharreko titulazioen zereenda zehatza egitea, ezta euskaraz zein kreditu eta zenbat eskainiko diren zehaztea ere.

Planak titulu berriak ezartzeko markoa definituko duten ildo eta helburuak zehaztu behar ditu. Tituluei dagokienez, graduakoak eta graduondokoak bereizi behar ditugu.

Graduko ikasketek lan-merkatu sartzeko oinarrizko prestakuntza eskainiko dute. Erraz aurreikus dezakegu ikasle gehien-gehienak ingurukoak izango direla, eta behin ikasketak amaituta, Euskal Herriko lan-merkatuan sartuko direla. Beraz, lan-merkatuarekin harreman estuan daude bai ikasketak bai ikasleak.

Horregatik, **euskaraz ikasteko eskaera behar adinakoa denean, graduko ikasketa guztiak euskaraz eskaintzeko helburua** ezartzea arrazoizkoa dela dirudi. Titulazio berri bat Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskaini behar bada, **bi eskaintza horiek batera ezarriko dira**. Edozein kasutan, kontuan hartu behar da Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak (2004) bere 45.3 artikuluan dioena: «Funts publikoz finantzaturako titulu berriak ezartzerakoan, taldeak finkatzeko euskara erabiliko da lehentasuneko irizpide». Ondo justifikaturako arrazoiak direla medio, hori posible ez balitz, txosten bat egingo da azalduz zeintzuk izango lirartekeen titulazioa beste hizkuntzan **ezartzeko erritmoa eta epeak**. Txosten hori **Gobernu Kontseiluak onartu beharko luke, aurretik Euskara Batzordeak beste txosten bat egin eta gero**.

Bestalde, Europako Unibertsitate Eremuan ere, lehen bezala, beharrezkoa da ikasleen euskarazko gaitasun linguistiko-komunikatiboa bermatzea. Hori dela eta, euskaraz ikasten duten ikasleen prestakuntza linguistikoa bermatzeko, **graduko ikasketa berrietako ikasketa-planetan hautazko bi ikasgai ezarriko dira**:

- Ikasgai horietako bat zehatzagoa izango da, eta titulazio bakoitzaren eduki eta beharretatik sortutako premia linguistiko eta terminologikoetara egokituko da. Ikasgaien izenean islatuko da dagokien titulazioarekin duten lotura; izan ere, ez dute «Euskara tekniko» izena hartuko, baizik eta «Euskara juridikoa», «Kazetaritzaren euskara», «Medikuntzaren euskara», eta abar. Izen horiek titulazioaren curriculumaren eta lan-arloen berri emango digute.
- Bigarren hautazko ikasgaia zeharkakoa izango da; izan ere, bertan ikasiko diren trebetasunak beharrezkoak izango dira euskaraz ikasten duen edozein ikaslerentzat, hautatu duen ikasketa edozein izanik ere. Ikasgai horretan ikasleek estandarizazio-prozesuko arauak landu eta hobeto ezagutuko dituzte, eta komunikazio-egoera desberdinetan nola erabili behar diren ikasiko dute. Ikasgai horrek izen orokorra izango du; adibidez, «Euskararen araua eta erabilera». Zeharkakoa izango denez, ikasgai hori ez da egongo titulazio zehatz bati loturik. Titulazio desberdinetako ikas-

leek ikasi ahal izango dute, baina komenigarria da berdinak ez izanik ere, antzekoak diren titulazioak izatea.

Graduondoko ikasketei helduz, aitortu beharra dago ez dela hain erraza helburu zehatzak finkatzea euskararen presentziari dagokionez, ikasketa horietan aldaketak sakonagoak izango baitira, eta aurreikuspenak zehaztugabeak.

Batetik, master ikasketak produktu hibridoak izango dira, gaur egungo bigarren zikloko ikasketen eta doktorego-programen artekoak, nahiz eta azken horietatik hurbilago egon. Bestetik, ikasketa horiek prestakuntza aurreratua eskainiko dute, arlo anitzekoa edo espezializatua, eta kasu askotan doktorego-programak amortizatuko dituzte.

Bestalde, Europako beste unibertsitate batzuek bezala, UPV/EHUk ere apurka-apurka ingelesa erabiliko du irakasteko. Horrek beste autonomia-erkidego batzuetako ikasleak (eta are Europakoak ere) erakartzeko indarra izango du, graduiko ikasketek dutena baino erakarpen-indar handiagoa, gainera.

Halaber, master berri guztiek lan-merkatura bideratuko dituzte ikasleak («master profesionalak»), eta batzuek ikerkuntzara ere bai («ikerketa masterrak»).

Badira hainbat arrazoi graduiko ikasketetako hizkuntza-eredua (talde bat euskaraz, beste bat gaztelaniaz) graduondoko ikasketetan dagoen-dagoenean ez ezartzeko: batetik, hainbat hizkuntza biltzen dira; bestetik, graduondoko programa ofizialak askotan unibertsitate artekoak dira; eta, azkenik, master berrietan oro har ikasle gutxiago matrikulatuko da (2007ko urte hasieran, UPV/EHUko 13 masterretan batez beste 17 ikasle matrikulatu ziren, gutxi gorabehera).

Eredu eleaniztun baterantz joan beharko dugu. Eredu horretan, irakasteko hizkuntzei dagokienez, aukerak asko izan daitezke: irakasgai batzuekin bi talde egitea, eskola praktikoak, tutoretzak, eta lanak ikasleak hautatutako hizkuntzan egiteko aukera.

Bospasei urte barru baino ezingo da aurreikusi master askotan matrikulazioa igoko den; izan ere, graduiko ikasketak egin dituzten ikasleen lehenengo belaunaldiak orduan erabaki beharko du lan-merkatuan sartu, ala prestatzen jarraitu masterra eginez. Beraz, aurreikuspen horiek Plan Gidari honen indarraldia baino aurreragokoak dira. Masterra egiteko aukera handiagoa da etorkizuneko ikasle graduatuen artean, gaur egungo ikasle lizentziatu edo diplomatuaren artean baino.

Hortaz, ezinbestekoa da ezarriko diren master horiek guztiak zehatz-mehatz ikertzea, horietan eskainiko diren irakasgaietan euskara zein neurritan erabiliko den zehazteko. Ikerketa hori

egiteko, lehen aipatutakoen antzeko irizpideak hartuko dira kontuan: ikaslea zein herrialde-tatik datorren, gizarteak goi-mailako hezkuntzaren inguruan artikulatzen dituen eskariak, edo euskal gizarterako duen interes berezia.

Irizpide horiek jarraituta, logikoa da arau hauek ezartzea, kasuan kasuko ikerketa zehatzak kontuan hartu gabe ere:

- a) Zenbat eta handiagoa izan Euskal Herriko ikasleen kopurua, zenbat eta garrantzi handiagoa eduki masterrak bertako eta eskualdeko lan-merkatu-rako, zenbat eta interes handiagoa izan titulazioak euskal gizar-tearentzat, orduan eta handiagoa izango da euskararen presentzia masterrean.
- b) Bigarren zikloak birmoldatze-tik sortutako masterrak euskaraz izango dira, ziklo horiek euskaraz eskaini direnean.
- c) Hartu beharreko erabakiek erraztu egingo dute epe ertainean helburu hau lortzea: bi hizkuntza ofizialen presentzia parekoa izatea, graduondoko programa berriak ezartzen amaitzerako.

Aipatu berri den helburu hori lortzeko, etorkizunari begira, martxan jarriko diren graduondokoetan ondoko irizpideak kontuan hartuko dira:

- a) Graduondoko tesia egin behar duten ikasleek euskaraz egin eta aurkezteko aukera izango dute.
- b) Eskaera nahikoa duten graduondoketan bi talde osatuko dira, horietariko bat euskaraz delarik.
- c) Eskainitako graduondo kopuruaren %25a gutxienez euskaraz izango da, edo behintzat, euskarazko eskaintza esanguratsua izango du.⁴

Beraien ikasketak euskaraz burutu dituzten ikasleek jasoko dituzten titulu edota espediente akademikoetan hizkuntzaren erabilera hau zehaztuko da. Euskara Errektoreordetzak, Euskara Batzordearekin batera, aztertuko du aparteko «Euskara Ikasketen Agiria» sortzeko aukera.

⁴ Puntu honi dagokionez, kontuan hartu behar da master ugarik izaera eleanitza izango duela. Testuinguru honetan ere ulertu behar da «eskaintza esanguratsua» buruzko aipamena.

Hala ere, bada egiturazko beste arazo bat, graduondoko ikasketetako politika (ele bi edo hiru ezartzeko) baldintzatzen duena. Arazo horri hurrengo epigrafean helduko zaio, baina komeni da orain gogora ekartzea. Lehen berriro ere irakasle eta ikertzaileen hizkuntza-eskakizunei buruzko estatistikak azaldu ditugu, eta talde horretan doktoreek duten presentziaren berri eman.

Datu horiek beste hauen berri eman digute:

1. UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen artean desoreka linguistiko handia dago, irakasle elebidunak gutxiago baitira, eta
2. irakasle elebidunen artean, erdiek baino ez dute doktore-titulua.

Beraz, irakasle elebidun gutxi dago, eta, gainera, irakasle elebidun doktore gutxi samar.

Alabaina, gradu eta graduondoko ikasketen egitura berriak balio handiagoa emango dio doktore-tituluari, eta titulazio berri bat balioztatzeko, ezinbesteko baldintza izango da titulu hori, neurri batean behintzat.

Horrela, «Graduko unibertsitate-tituluak eta masterrak egiteko jarraibide-proposamena» izeneko lanerako agirian, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2006ko abenduan aurkeztu zuen horretan, honakoa jasotzen da irakasleei dagokien atalean:

«Masterrak doktorego-programa baten baitakoak direnean, edo master-ikastaroak doktore izateko prestakuntzaren zati direnean, irakasle guztiek izan beharko dute doktore-titulua. Gainerako master edo graduoko tituluetan, gutxienez irakasleen erdiak doktore izan beharko du».

Lanerako agiri hori, oraindik arau-emailea ez denez, alda daiteke. Baina ziurrenik irakasle doktoreen presentziari buruzko jarraibide horrek aurrera egingo du, eta agian aipatutako kopuruetara iristen ez diren titulazioei igarotze-aldi bat ezarriko zaie. Jarraibide hori UPV/EHUn ezartzearen ondorio izan daiteke irakasle elebidun gehienak lehentasuna duten graduoko ikasketek irakasten aritzea, eta masterretarako geratzen diren irakasle elebidun doktoreak behar baino gutxiago izatea.

Beraz, graduondoko ikasketetan euskararen garrantzia bermatzeko bi baldintza hauek bete behar dira:

1. irakasle eta ikertzaileen desoreka linguistikoa murriztea, eta
2. irakasle elebidun doktoreen kopurua handitzea.

Horri buruz arituko gara hurrengo atalean.

4.3. Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz

Gutxienez, arduraldi osoko Irakasleen %43 elebidunak, bost urteren buruan

UPV/EHUK bi baliabide ditu irakasle eta ikertzaileen desoreka linguistikoa zuzentzeko.

Batetik, erretiroa dela-eta hutsik geratutako plaza elebakarrak amortizatzea, edo, bestela, plaza horiei euskarazko hizkuntza eskakizuna ezartzea.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzarekin plaza berrien hornikuntza negoziatzea, euskarazko irakats-eskaintza zabaltzeko helburuarekin.

Kasu honetan, kalkuluak egiteko, kontuan hartu behar dira lanpostu finkoetako arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileak («I mota» izenez ezagutuak), horiek baitira unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen *bizkarrezurra*. 2006. urtearen bukaeran UPV/EHUko I motako arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileen %35,36 ziren elebidunak. Datozen urteotan erretiroa har dezaketen irakasleen kopuruan oinarrituta, eta bide horretatik etorriko diren baliabide gehienak lanpostu elebidun berriak sortzeko erabiliko direla kontutan hartuz, batez beste, 57 lanpostu berri sortuko dira datozen bost urteetan. Horrela, plangintza-aldi berriaren amaierarako, **Eus-
kal Herriko Unibertsitateko I motako arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileen %43k, gutxienez, euskarazko hizkuntza-eskakizuna izango duten plazak beteko dituzte**⁵.

Desoreka linguistikoa edota bestelako premiak dituzten sailei laguntzea

Alabaina, desoreka linguistikoa handiagoa dela ikusiko dugu, irakasle eta ikertzaileen plantilla osoaren makro-analisisa egin ondoren, 109 sailak hartzen baditugu kontuan. 2005/2006 ikasturtean irakasle eta ikertzaileen plantillako %32 elebiduna zen (Unibertsitatea zenbakitan, 2005/06). Bada, hainbat sailetan ez dira kopuru horretara iristen.

⁵ Lerro hauek idazteko unean, Irakasleen Errektoreordetza Jubilazio Plana ari da presta-tzen. Datako egunean ezin da zehaztu zeintzuk ondorio izango dituen plan horrek behin indarrean jarrita, baina zentzuzkoa dirudi uste izatea jubilazioen kopuruak gora egingo duela, planaren helburua baita horiek bultzatzea. Beraz, atal honetan adierazi den helburua (irakasle eta ikertzaileen %43 elebidunak) berriro aztertuko da, Jubilazio Plana indarrean sartu eta bi urteren buruan.

Premia handiak dituzten sailen irakats-betebeharra edozein dela ere, litekeena da irakasle elebidunen egoera eskasa izatea gorago aipatu diren arrazoiengatik: zailtasunak bajak ordezkatzeko epe laburrean; asti gutxiago doktorego-tesiak edo ikerketa-proiektuak egiteko; graduko ikasketen eskolak eman beharra eta, ondorioz, ezin eman graduondoko ikasketetan; ikasmateriala prestatzeko eta berrikuntza proiektuetan parte-hartzeko denbora gutxiago...). Desoreka linguistikoa duten sailak direla esango dugu, irakasle elebidunek betetzen dituzten arduraldi osoko lanpostuak plantilla osoko lanpostuen %33 baino gutxiago direnean.

Euskararen Plan Gidariak egoera aztertu behar du, ondoren sail horien egoera hobetzeko.

Azterketa hori egiteko, eta premia handiak dituzten sailak zeintzuk diren kontuan hartuta, 109 sailetako irakasle eta ikertzaileen plantilla-konfigurazioa aztertu dugu.

Azterketa hori egin ondoren, sailen artean talde bat bereizi behar dugu: klinikako irakas-kuntza duten Medikuntzako sailei buruz ari gara, hain zuzen ere:

0019 Pediatria.

0083 Dermatologia, Oftalmologia eta Otorrinolaringologia.

0084 Medikuntza.

0094 Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak.

0095 Estomatologia.

0144 Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa.

Dakigun bezala, sail horiek, Estomatologia salbu, ospitaleetan dute irakaskuntza (gehienetan arduraldi partzialekoa); beraz, ospitaleetan plaza duten mediku elebidunen premia daukate.

Irakats-eskaintzari dagokion epigrafean, dagoeneko adierazi da kliniketako irakats-eskaintza zabaltzeko, lehenbizi azterketa errealista egin behar dela apurka-apurka fakultatearekin batera. Horretarako, garrantzia handikoa izango da gaur egun Osakidetzarekin negoziatzen ari garen hitzarmena. Beraz, sail kliniko horietako irakasle eta ikertzaile elebidunen egoera etorkizunean hitzarmen horretan xedatutakoaren arabera izango da neurri handi batean.

Horiek horrela, premia handiak dituzten sailen zerrendan 50 sail daude, baina egoera oso desberdinean. Logikoa denez, edozein neurri hartu aurretik, xehetasunez aztertu behar da sail bakoitzaren egoera, eta irakasle elebidunen ehunekoa baino datu gehiago sartu. Sailean premia badagoela egiaztatzen bada, prozedura hau jarriko da abian:

Euskara errektoreordea eta Irakasleen errektoreordea sail bakoitzeko arduradunekin elkartuko dira, proposamen zehatzak egin eta horiek betetzeko epeak erabakitzeo, sail bakoitzean

irakasle elebidunen kopurua %30 baino handiagoa izan dadin. Erabaki horiek etorkizunean Irakasle eta Ikertzaileen Plan Gidariak zehaztuko dituen jarraibideen arabera izango dira.

Desoreka linguistikoa daukaten sailen aldeko neurriez gain beste mota bateko neurriak ere hartuko dira, irakasle elebidunen kopurua %33 baino handiagoa daukaten sailei zuzenduak, baldin eta egiaztatzen bada irakasle horien egoera ez dela ona premia estruktural batengatik, eta ez unean uneko arazo batengatik. Beraz, behin kasua aztertuta, Euskara errektoreordeak eta Irakasleen errektoreordeak egoera konpontzeko neurriak adostuko dituzte kasuan kasuko sailaren arduradunekin.

Unibertsitatearen premiei buruzko informazio ahalik eta zehatzena izateko, ikastegietako ordezkariak batzen dituzten hiru campusetako euskara-batzordeek txostena bidaliko dute Euskara Errektoreordetzara ikasturtearen lehen lauhilekoan, hurrengo ikasturterako dauden premien eta ezarritako lehentasunen berri emateko.

Doktore elebidun gehiago

Gorago aipatu dira irakasle elebidun doktoreen kopurua eskasa izateak dakartzan arazoak; halaber, egoera hori zuzentzeko beharra adierazi da, gradu eta graduondoko titulu berriak ezartzeari begira.

UPV/EHUko plantillan irakasle elebidun doktore gehiago egon daitezten, unibertsitateko politikak bi alorretan lan egin dezake: batetik, doktore ez diren irakasle elebidunen alorrean, doktorego-tesiak sustatzeko programak diseinatuz; bestetik, irakasle eta ikertzaile berrien alorrean, plaza elebidunak ezarriz.

Zehazki, UPV/EHUko irakasle elebidunen maila akademikoa igo eta doktore titulua dutenak gehiago izan daitezten, sei neurri proposatzen ditugu:

1. Irakasle eta ikertzaileen desoreka linguistikoak eragindako premiak edo bestelako premia estrukturalak egiaztatu dituzten sailekin izan beharreko elkarriketetan, bereziki saileko doktoreen kopurua handitzeko proposamenak baloratzea, irakasle eta ikertzaileen desoreka linguistikoa zuzentzeko neurriak hartzeko orduan.
2. Irakasleen Errektoreordetzarekin ados jarrita, doktore titulua eskuratzeko lizentziatarako deialdia zabaltzea, horrela irakasle euskaldun doktoreen ehunekoa areagotuz.

3. Arduraldi osoko lanpostu berriak betetzeko aukera dutenei doktore-titulua eskatzea. Titulu hori daukan hautagairik ez badago, salbuespena egin ahal izango da, eta hautagai horiei aldi baterako kontratua egin, beren curriculuma behar adinakoa denean. Horrelako kasuetan, kontratua luzatu beharko balitz, bete beharreko baldintza izango litzateke lehenbizi doktore-titulua eskuratzea, edo behintzat baldintza hori ahalik eta epe motzenean betetzea, horretarako beharrezkoak diren laguntzak izango dituelarik.
4. Laguntzaile lanpostu berri gehienek soslai elebiduna izango dute, horrela unibertsitateak etorkizunean beharko dituen irakasle doktore elebidunen harrobia zainduz.
5. Gaur egun plantilan dauden irakasleei dagokienez, euskara ikasteko eta ondoren lanpostuen soslai aldatzeko erraztasunak emango zaizkie.
6. Sail desberdinekin eta hainbat urtetarako epealdi jakin batean irakasle eta ikertzaileen kudeaketaren inguruko helburuak ezartzerakoan, euskaldunak ez diren irakasleentzako neurri bereziak aztertuko dira irakasle horiei erraztasunak emateko euskara ikas dezaten. Beste alde batetik, hizkuntza eskakizunik gabeko laguntzaile-lanpostuak betetzen ari diren pertsonen kasuan, hizkuntzaren gaitasuna lortzea beraien prestakuntzaren parte bat bezala hartuko da. Hori dela eta, pertsona horiei begira euskara ikasteko programa bat diseinatuko da, beraiekin finkatu beharreko baliabideak, erritmoak eta helburuak adostuko direlarik.

4.4. Euskarazko ikasmateriala

Agerikoa da normalkuntza-prozesuaren barruan euskarazko ikasmaterialak eskasa izaten jarraitzen duela, Euskara Errektoreordetzak eta UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak egindako ahaleginak gorabehera (ahalegin horiek gorago aipatu ditugu). Egoera are eskasagoa da, kon-tuan hartzen badugu euskarazko taldeetan matrikulatutako ikasleak gero eta gehiago direla, eta horrek behar berriak sortzen dituena.

Halaber, titulazioen mapa-berregituraketak eta ECTS delakoak ekarritako berrikuntza metodologiko eta pedagogikoek euskarazko ikasmaterial ona izateko premia areagotu dute.

Ikasmaterial hori bi eratarata sortu daiteke: oinarrizko testuliburuaren itzulpena eginez, edo materiala UPV/EHUko irakasleek berek sortuz.

Oinarri sendoa: eskuliburuak

Testuliburuak nazioarteko aditu ezagunek idazten dituzte. Aditu horiek irakasgai baten edo antzekoak diren hainbat irakasgairen oinarrizko materia jasotzen dute, eta materia hori ikaske-tak burutzen ari diren ikasleek ezagutu beharrekoa izango da. Liburu horiek ez dute egoeraren araberako aldaketa handirik jasaten; izan ere, zabaltzen duten ezagutza oinarrizkoa da, epe mo-tzean aldaketarik izaten ez duena, beraz. Liburu «klasikoak» izan ohi dira, gutxienez bost ur-teko indarraldia izaten dutenak.

Mota horretako argitalpenen ekoizpenak bultzada handia izan zuen indarrean jarri ze-nean UPV/EHUren Euskararen Normalizaziorako II. Plangintza; gainera, ekoizpen prozesuan zehar kalitate-kontrolak areagotu ziren.

Horregatik, gaur egun ziurtasun osoz esan dezakegu UPV/EHUK euskaraz argitaratu dituen eskuliburu guztiek beharrezko kalitate-baldintzak betetzen dituztela. Izan ere, lehiaketa pu-blikoa irabazi ondoren enpresek egindako itzulpen-lanek bi berrikusketa izan dituzte, hizkun-tzari dagokiona bata, eta gaiari dagokiona bestea.

Alabaina, logikoa den bezala, kalitatea bermatu beharrak ekoizpen-prozesua mantsotu du. Lan bat argitara emateak luze jotzen du, honako urratsak jarraitu behar baitira: jatorrizko lana daukan argitaletxearekin egile-eskubideak lortzeko negoziaketak egin, lehiaketa publikorako deialdia egin, kontratua esleitu, testua itzuli eta bi aldiz berrikusi eta, azkenik, liburua make-tatu eta inprimatu. Gauzak ongi joanda, bi urte behar izaten dira prozesu osoa burutzeko.

Alabaina, badirudi nahitaezkoa dela denbora hori, erabateko kalitatea eskaini nahi bada, eta itzulpenetan akats larriak dituzten liburuak edo erabiltzaile-irakurleentzat ulergaitzak dire-nak argitaratu nahi ez badira.

Testuliburuak ekoizteko prozesua zehazteaz gain, beharrezkoa da lehentasunak ezartzea; izan ere, beharrak beti dira baliabideak baino gehiago, eta gainera baliabide horiek mugatuak izaten dira.

Lehentasunak zeintzuk diren zehazteko, lehenengo ahultasunak eta hutsuneak identifikatuko dituen azterketa egin behar da. Jakina, azterketa horren oinarri bakarra ezin dira izan UPV/EHUK ekoiztutako liburuak; izan ere, Euskal Herriko beste unibertsitate batzuek edo argitaletxe komer-tzial batzuek ere argitara ditzakete euskaraz irakaskuntzarako baliagarriak diren materialak.

Gaur egun daukagun datu-baserik osatuena INGUMA da, Udako Euskal Unibertsitateak martxan jarritakoa eta kudeatutakoa.

Ikerketa batean INGUMAk jasotako unibertsitateko argitalpenak aztertu ziren, eta ondoren ezagutzaren zazpi alorren arabera sailkatu. Azterketa horretatik ateratako datuak jakintzarlo bakoitzean UPV/EHUK eskaintzen dituen titulazio kopuruarekin konparatu ziren⁶. Guk alor bakoitzean euskaraz matrikulatutako ikasle-kopuruari dagokion datua gehitu dugu. Hauxe da emaitza:

**Euskarazko liburuak, eskaintako titulazio-kopurua,
eta euskarazko taldeetan matrikulatutako ikasle kopurua (2006/07)**

Jakintza -arloa	Eskaintako titulazio-kopurua	Euskarazko argitalpenen kopurua	Euskaraz matrikulatutako ikasle-kopurua
Ingeniaritza eta Teknologiak	37	45	3.576
Zientziak	11	51	1.323
Zientzia Aplikatuak	9	12	1.885
Arteak eta Musika	1	10	557
Gizarte Zientziak	30	295	7.083
Giza Zientziak	10	533	923
Osasun Zientziak	7	13	1.265
Guztira	105	956	16.612

⁶ Euskaraz ikasteko nahikoa eskaera dagoenean, graduiko ikasketak euskaraz eskaintzea da Plan Gidariaren helburuetako bat. Beraz, UPV/EHUK eskaintzen dituen ikasketak zenbatzerakoan, ez dira baztertu gaur egun erabat euskaraz burutu ezin direnak. Ikastegi batean baino gehiagotan eskaintzen diren titulazioen kasuan, zenbat alditan eskaintzen diren zenbatu da. Argitalpen kopuruari dagozkien datuak UEUK eginiko ikerketa batetik atera dira: «Unibertsitate mailako euskarazko ikasmaterialaren azterketa 1995-2005», 96 or., 2006ko maiatza. Ikerketa horretan ez dira agertzen *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua* titulazioarekin lotutako liburuak; izan ere, lizentziatura hori, gizarte zientzien alorrean sartuko litzatekeena, sortu berria da; alabaina, titulazioa eta bertan euskaraz matrikulatutako ikasle-kopurua (2006/07an 285 ikasle) kontuan hartu ditugu titulazio-kopurua eta euskaraz matrikulatutako ikasle-kopurua zenbatzerakoan. Beraz, euskarazko argitalpenen kopuru zehatza zein den ez dakigunez, hutsune txiki bat dugu datu horri dagokionez.

Datu horiek gutxi gorabeherakoak direla esan beharra dago, bertatik edozein emaitza atera aurretik. Izan ere, kontuan hartutako argitalpenak azaletik erreparatzen baditugu, konturatu gara guztiak ez direla *strictu sensu* unibertsitateko ikasmaterialak. Badirudi batez ere giza zientzien alorrean sartu direla zehazki unibertsitatekoak ez diren ikasmaterialak; beraz, ziurrenik 1995 eta 2005 arteko argitalpenen kopurua (533) puztuegi dago. Hala ere, joerak begi-bistakoak dira.

Eskainitako titulazioak/liburu-kopurua eta liburu-kopurua/matrikulatutako ikasle-kopurua ratioak kalkulatu baditugu, honako emaitza izango dugu: ikasketa bakoitzeko 9 liburu eta 17 ikasleko liburu 1. Horrela, batezbesteko horren gaineratik eta azpitik zein alor dauden jakin dezakegu.

Jakintza-arloa	a. Liburu- kopurua/eskainitako titulazio-kopurua	b. Liburu- kopurua/ Ikasle- kopurua	c. Batezbestekoa a. eta b. artean	d. Euskarazko argitalpenen kopurua	%
Ingeniaritza eta Teknologia	333	210	272	45	16,54
Zientziak	99	78	86	51	59,30
Zientzia Aplikatuak	81	110	96	12	12,50
Artea eta Musika	9	33	21	10	47,62
Gizarte Zientziak	270	417	344	295	85,76
Giza Zientziak	90	54	72	533	740,28
Osasun Zientziak	63	74	69	13	18,84

Ikusten den bezala, unibertsitateko euskarazko liburuen ekoizpenari dagokionez, titulazioak/liburuak eta ikasleak/liburuak ratioak kalkulatu ondoren lortutako batezbestekoaren azpitik daude alor guztiak. Salbuespen deigarri bakarra giza zientzien alorra da.

Bereziki larria da «Ingeniaritza eta Teknologiak» alorraren egoera. Bertan, hainbat ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoz gain, informatika eta arkitektura arloko titulazioak sartzen dira. Alde handia dago titulazioko eta euskaraz matrikulatutako ikasle-kopuruko dauden liburuen eta «egon beharko luketen liburuen» artean. Bi faktore horien arteko harremana adierazten dute azken zutabeko ehunekoek. Datu gordin horiek guztiek argi uzten dute euskaraz daukagun irakats-materiala eskasa dela.

Datu horiek are gogorragoak izango lirateke kontuan hartuko bagenitu telekomunikazioen arloko titulazioak. Titulazio horiek, sailkapen hamartar unibertsalaren arabera banatutako alorren artean, Zientzia Aplikatuak deritzenen barruan kokatzen dira.

Giza Zientzien alorra batezbestekoaren oso gainetik dago; baina, esan bezala, unibertsitateko euskarazko liburuen kopuru erreala puztu samarra dago. Hala ere, ez dirudi bost urterako lehentasunen zerrendan sartu beharrekoa denik, geroago azalduko dugun salbuespen bat edo beste alde batera utzita.

Aitzitik, Gizarte Zientzien alorrak zerrenda horretan egon beharko luke. Nahiz eta azken zutabeko ehunekoak (85,76) adierazten digun ez zaiola asko falta gure kalkuluen arabera izan beharko lukeen argitalpen-kopurura iristeko, ez dugu ahaztu behar ikasle euskaldun gehienak alor horretako ikasketetan matrikulatuta daudela. Beraz, %100era iristeko 49 liburu faltako lirateke. Aitzitik, 11 liburu faltako lirateke Artea eta Musikaren alorrean; azken kasu horretan %52ra igoko litzateke portzentajea. Ikusten den bezala, aldeak nabarmenak dira bi alorren artean.

Laburbilduz, ia ezagutzaren arlo guztietan aurkitu ditugun hutsuneak bete behar dituzte datozen bost urteetan itzuli beharreko liburuek. Giza Zientziak salbuespena dira, argitalpen kopuru handia baitugu bertan.

Horregatik, oraingoz behintzat, alor hori ez dugu kontuan hartu jarraian aurkeztuko dugun kalkulua egiteko, batezbestekoaren oso gainetik dagoen bakarra baita.

Alabaina, hurrengo ariketa aritmetikoa egiteko Giza zientziak kontuan ez hartzeak ez du esan nahi alor horretan ere euskaraz eskuliburu gehiago argitaratuko ez denik. Aurrerago adieraziko dugu zein baldintza bete beharko diren argitalpen berrietarako. Euskarazko irakats-materialari dagokionez superabit nabarmena duen alorrean argitalpen gehiago izateko bi arrazoi ditugu; bata filosofikoagoa; bestea, praktikoagoa.

Lehenengo arrazoiari dagokionez, esan beharra dago Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen Plan Gidariak oreka bilatu beharko lukeela hartu beharreko neurrien artean. Izan ere,

alde batetik, premia handiak dituzten alorretan dauden arazoak konpontzeko neurriak hartu behar dira; eta, bestetik, egoera egokiena ez izanik ere, nahiko egoera hobea daukaten alorrak hobetzeko neurriak. Bestela esanda, premia handiagoak dituzten alorretan lehentasunak zehazteak ez lioke atea itxi beharko egoera hobean dagoen alorra hobetzeko egindako edozein proposamen arrazoituri.

Bigarren arrazoiari dagokionez, lehen aipatutakoa gogoratu behar dugu: Giza Zientzietako argitalpen kopuruari buruzko datuak gutxi gorabeherakoak dira; izan ere, bertan sartu dira zehazki unibertsitatekoak ez diren liburuak; beraz, datu horiek puztu samarrak daude. Hala ere, euskarazko irakats-materialari dagokionez, egia da Giza Zientziak dela egoera onenean dagoen alorra, baina azterketa zehatzagoa eginez gero, ikusiko dugu alor horretako hainbat diziplinan egoera konplexuagoa dela, oraindik ere euskarazko oinarrizko irakats-materiala falta baitute. Adibidez, gaur egun ez dago euskal literaturaren historiari buruz euskaraz idatzitako unibertsitateko liburu bakar bat ere (ez, behintzat, berri samarra edo nahiko osatua denik). Horrelako datuek, ohikoak ez badira ere, aipatutako konplexutasun horren berri ematen digute. Beraz, zenbaki gordinen atzean askotan hutsuneak eta beharrak ezkututzen dira, eta horiek guztiak azaleratzeko beharrezkoa da alor desberdinetako irakats-materialaren analisi kuantitatiboaz gain, azterketa kualitatiboa egitea.

Giza Zientzien kasua argitu ondoren, lehentasuna eman beharreko argitalpenen zerrenda egin dezakegu.

Beheko taulan, irakats-materialari dagokionez lehentasunak zehazteko balioko duen kalkulua agertzen zaigu. Ia ezinezkoa da zehaztea zenbat testuliburu itzuli eta argitaratu litezkeen bost urtetan Euskara Errektoreordetzaren aurrekontua kontuan izanda; izan ere, testuliburu bakoitzaren prezioa hainbat faktoreren arabera izango da: egile-eskubideak izateko ordaindu beharrezkoa, testuliburuaren tamaina eta koloretako irudi-kopurua.

Hala ere, kontuan hartzen badugu azken urteetan batez beste bospasei eskuliburu argitaratu direla urtero, esan genezake Plan Gidaria indarrean den bitartean 30 liburu argitara litezkeela.⁷ Datu horiek ikusita, honako banaketa proposatzen dugu:

⁷ Lerro hauek idazteko unean Unibertsitateko Plana negoziatzen ari gara Eusko Jaurlaritzarekin. Negoziaketa horien ondorioz euskarazko irakats-materiala sortzeko aurrekontu-partida aldatuko balitz, kalkulu horiek berrikusi egin beharko lirakeke.

Taula: testuliburuen itzulpenak 2007/08-2011/12⁸

Jakintza-arloa	a. Liburuak, eskainitako titulazioen arabera	b. Liburuak, ikasle- kopuruaren arabera	c. a. eta b. arteko batezbestekoa	d. Euskarazko argitalpenen kopurua	e. Falta diren argitalpenak	f. 5 urtetan argitaratu beharrekoak
Ingeniaritza eta Teknologia	333	210	272	45	227	15
Zientziak	99	78	86	51	35	2
Zientzia aplikatuak	81	110	96	12	84	5
Artea eta Musika	9	33	21	10	11	1
Gizarte Zientziak	270	417	344	295	49	3
Giza Zientziak						
Osasun Zientziak	63	74	69	13	56	4
Guztira			888	426	462	30

Argi dago argitalpenak egiteko erabakiak hartzeko lehentasun-markoa zehazteko balio ditutela zenbaki horiek guztiek. Marko hori malgutasunez interpretatu behar da, eta kasuan kasuko ezaugarrietara egokitu.

Adibidez, zalantza handiak ditugu esateko Ingeniaritza eta Teknologia alorrean 15 eskuliburu argitaratu behar direla, kalitatea handikoak eta beherago aipatuko ditugun baldintza guztiak beteko dituztenak. Aitzitik, Zientziak edo Gizarte Zientziak alorretako hainbat diziplina zehatzago aztertuko bagenu, esan genezake komeniko litzatekeela aurreikusitako 2 edo 3 eskuliburuak baino eskuliburu gehiago itzultzea.

⁸ Taula honetako kalkuluak honela egin dira:

e zutabea (falta diren argitalpenak): c zutabearen ezarritako batezbestekora iristeko falta diren argitalpenak agertzen dira. Egindako eragiketa: $4 \cdot \text{zutabeko kopuruari } 5 \cdot \text{zutabekoa kendu zaio (Adibidez, Ingeniaritza eta Teknologia alorrean: } 272 - 45 = 227)$.

f zutabea (5 urtetan argitaratu beharrekoak): alor bakoitzean falta diren argitalpenak kalkulatu dira, orotara falta diren argitalpenak eta egin nahi diren 30 argitalpenak kontuan izanda. Egindako eragiketa: e zutabeko kopurua 30 al-diz biderkatu da, eta emaitza hori zatitu, orotara falta diren argitalpenak kontuan izanda (462) (Adibidez, Ingeniaritza eta Teknologia alorrean: $227 \times 30 / 462 = 15$). a. eta b. arteko batezbestekora iristeko orotara falta diren argitalpenak hartu dira kontuan.

Halaber, azterketa zehatzagoa eginez, ondorio hau atera genezake: Giza Zientzien alorrean argitalpen bat egin beharko litzateke, nahiz eta bertako laukia hutsik agertu kalkulu aritmetiko horretan.

Lehentasan-markoa egokitzea eta zehaztaperen kuantitatiboak egitea Euskara Errektoreordezari dagokio, Euskara Batzordearen eta Euskara Zerbitzuaren aholkularitzapean.

Horiek horrela, **itzuli beharreko liburuak aukeratzeko prozesua** honelakoa izango da:

- a) Ezarritako lehentasanak kontuan izanda, hiru campusetako Euskara Batzordeek zerrenda bat egingo dute, itzuli beharreko liburuen proposamenekin. Batzorde bakoitzak kontuan izango ditu bere campusak dituen beharrak, lehentasuna duten argitalpenak zeintzuk diren zehazteko, eta zehaztaperen horien moldaketak egiteko. Beharren azterketa horrek bi alderdi hartu behar ditu kontuan: bata, alderdi kuantitatiboa (alor eta diziplina bakoitzean dagoen argitalpen-kopurua); bestea, alderdi kualitatiboa (dagoen materialaren gaurkotasuna eta kalitatea, kuantitatiboki egoera onean dauden alor eta diziplinen hutsune zehatzak). Campuseko errealitatera egokitzeko orduan, ez litzateke a priori ezagutzaren arlo bakar bat ere bazterrean utzi beharko, nahiz eta beti eman behar zaien lehentasuna Ingeniaritza eta Teknologiai.

Dena dela, proposatutako liburuek honako irizpideak errespetatu behar dituzte:

- Enborrezko edo nahitaezko irakasgai baterako edo bat baino gehiagorako —eta batez ere lehen zikloko irakasgaietarako— izatea.
 - Liburuak balizko erabiltzaile-kopuru garrantzitsua izatea (lehentasuna emango zaie titulazio desberdinetarako baliagarriak direnei).
 - Liburu «klasikoa» izatea, eta azaltzen duen gaiak gutxienez 5 urtez garrantzia izango duela aurreikustea (adibidez, adierazgarria da liburu originala eta segidako hainbat argitalpen dituen izatea).
 - Originalak 400 orrialde baino gehiago ez izatea, arrazoizko salbuespenak alde batera utzita.
- b) Euskara Batzordeak, Euskara errektoreordea buru izanik eta Euskara Zerbitzuak aholkaturik, campusek igorritako proposamenak jasoko ditu, eta itzuli beharreko liburuak behin-betiko hautatuko ditu, bost urterako kronograma ezarriz.
 - c) Behin hautaketa eginda, Euskara errektoreordeak lehenengo urtean itzuli behar diren liburuak argitaratzeko izapideak egingo ditu (egile-eskubideak lortu, itzulpena egiteko

lehiaketa publikoa deitu, hizkuntza eta gaia bera berrikusteaz arduratuko direnak izendatu...).

- d) Hurrengo urteetan, izapide horiek egiten hasi aurretik, campusetako euskara-batzarrek urte bakoitzean itzuli beharreko liburuen indarraldia baliozkotuko dute. Proposamenen bat zaharkiturik geratuko balitz, campusetako euskara-batzarrek ordezeko bat proposatu beharko lukete bazter utzitako liburuarentzat. Proposamen berri hori onartu edo baztertzeko eskumena unibertsitateko Euskara Batzordeak izango du.
- e) Argitaratutako eskuliburu berrien salmenta eta banaketari buruzko datuak Euskara Errektoreordetzak emango dizkio Euskara Batzordeari aldian-aldian. Behin liburua argitaratu ondoren, bere itzulpena proposatu zuen campuseko Euskara Batzordeak bere banaketaren segimendua egingo du. Horretarako, batez ere kontuan izango du ea aipatzen den liburu hori titulazioen gidetan argitaratzen diren bibliografia gomendagarrietan. Ez bada aipatzen, irakasgaiaren edo irakasgaien ardura daukanarekin harremanetan jarriko da, horren zergatiak jakiteko.

Euskara Errektoreordetzak Euskal Herriko beste unibertsitate batzuei eta irakats-materiala argitaratzeaz arduratzen diren beste erakunde batzuei proposatuko die plataforma bat sortzea, argitalpen-politika koordinatzeko, eta inbertitutako bitartekoen korritua ahalik eta gehien maximizatzeke.

Ikasmaterial propioa sortzeari bultzada

Testuliburuak oinarrizkoak eta ezinbestekoak dira edozein motatako irakaskuntzan, batez ere maila oinarrizkoetan, baina badira beste ikasmaterial batzuk, horiek bezain garrantzitsuak direnak, beste funtzio batzuk betetzen badituzte ere. Material zehatzagoak dira, irakasle bakoitzak bere metodologiara eta irakasgaiaren edukietara egokitzen dituenak, eta epe motz edo ertainean aldaketa gehiago izaten dituztenak. Material hori normalean fotokopiatutako apunteen bidez edo koadernoen bidez banatzen da ikasleen artean, baina irakasle batzuek sarean ere esekitzen dituzte.

Euskara Errektoreordetzak material mota horren sorkuntza bultzatu du, berariaz horretarako deialdia eginez. Deialdi horretan hautatutako proiektuei laguntza ematen zaie material

suntsikorra eta inbentariatu daitekeena sortzeko. Horrez gain, zuzenketa linguistikoak egiteko zerbitzua eskaintzen zaie, eta amaitutako eta zuzendutako produktua sarean argitaratzeko aukera, ISBN zenbakia lortzeko izapideak errektoreordetzarekin egin ondoren.

Argi dago ECTS ezartzeak eta titulazio berrien ikasketa-gidak egiteak mota horretako material gehiagoren beharra ekarriko duela. Pentsatzekoa da material berriak sortzeko lanari ihes egiten dioten irakasleentzat ere badirela hainbat pizgarri (aipatutako deialdikoek gain), aurreantzean lan horretan arreta gehiago jar dezaten: besteak beste, kredituak onartuko dira, eta produkzio-osagarriak balioztatzeko orduan lan hori aitortuko da.

Alabaina, zaila edo ia ezinezkoa da zehaztea material propio horren ekoizpenak zenbateko gorakada izango duen. Orain arte, ikasmateriala sortzeko egin diren eta onartu diren proiektu eskaerei erantzun ahal izan zaie, baina azken bi urteetan produkzioa gehitzeak atzerapenak eragin ditu batzuetan Euskara Zerbitzuko langileek burutzen duten zuzenketa linguistikoak egiteko prozesuan.

Ikasmaterial propioa sortzeak lehentasuna dauka Europako Unibertsitate Eremura igarotzen ari garen honetan; beraz, sorkuntza-lan hori bultzatzen jarraitzeko, Euskara Errektoreordetzaren jarraibideak honakoak izango dira:

- a) Ikasmateriala sortzeko deialdian aurkeztutako proiektu bakar bat ere ez da baztertuko, aurrekontu falta dela eta.
- b) Finantzatu ezin diren proiektuak baldin badaude urteren batean, onartutako proiektuei eman beharreko diru-laguntzaren zenbateko osoak gainditu egiten duelako erabilgarri dagoen aurrekontu-partida, proiektu horien finantzaketa eta gauzatzea urtebetez atzeratuko da gehienez ere.
- c) Bitartean, Euskara errektoreordeak hurrengo urterako aurrekontua berregituratuko du, gauzatzeko dauden proiektuen finantzaketari ere aurre egin ahal izateko. Aurrekontua handitzeak hala eskatzen badu, campusetako errektoreordeekin negoziatuko du gastuen zati bat nork bere gain hartzeko aukera.
- d) Helburuetako bat izango da amaitutako material garrantzitsuenak edizio elektronikoan aurkeztea, horietan interesa duen edonoren esku egon daitezen. Horretarako, deialdiko testua aldatu egingo da, helburu hori lortzeko xedapenak ezarriz.
- e) Deialdiari beste berrikuntza bat gehituko zaio, zaharkitua geratu den ikasmateriala berrikusi eta eguneratzeko. Berrikuspen horretatik sortutako material berria edizio elektronikoan aurkeztuko da.

4.5. Prestakuntza linguistikoa

Argi dago euskararen estandarizazio-prozesua amaitzeko oraindik asko falta dela. 1968ko bileran euskara batuaren aldeko apustua egin zuenean, Euskaltzaindiak euskararen aldaera estandarra zein izango zen finkatu bazuen ere, estandarizazioaren gainerako faseetan (kode-tzea, inplementazioa, elaborazioa) oraindik ere bide luzea dago egiteko. Funtsean, atzerapen horren ondorioak bi dira; batetik, ez daukagula ziurtasunik hizkuntzaren alderdi terminologiko, kontzeptual, sintaktiko eta estilistikoari dagokionez; eta, bestetik, horren ondorioz beste hizkuntza nagusi batzuen menpe gaudela (gaztelania edo frantsesa).

Hizkuntzaren estandarizazioaren fase desberdinetan, Euskal Herriko Unibertsitateak egin-kizun garrantzitsua betetzen du; izan ere, urtero milaka ikaslek euskaraz ikasten dute bertan, eta horrela inplementatu (edo hobeto esanda, gizarteratu) egiten dira Euskaltzaindiak finkatu-tako hizkuntzaren arauak eta kodeak.

Inplementazioan ez ezik, unibertsitateak parte-hartze aktiboa dauka hizkuntzaren kode-tze eta elaborazio lanetan. Horretan dihardute hainbat irakasle adituk Euskal Filologia Sailean, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean, Euskara Institutuan eta Euskara Zerbitzuan.

Beraz, prestakuntza linguistikoa oinarritzko zeregina da UPV/EHUko eguneroko lanean, eta horrela izaten jarraitu behar du, baita Europako Unibertsitate Eremuan ere. Halaber, Plan Gidari honek hori horrela dela islatu behar du.

Baina, argiagoak izan gaitezten, desberdindu egin behar ditugu, alde batetik, irakasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen prestakuntza hobetzeko neurriak; eta, bestetik, ikasleen prestakuntza hobetzekoak.

AZPko langileak, eta irakasle eta ikertzaileak: Kualifikazioa eta hobekuntza

- a) Euskara Zerbitzuak **hobekuntza-ikastaroak** antolatuko ditu AZPko langileentzat eta irakasle eta ikertzaileentzat. Hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dituzten langileen artean galdeketak egingo dira, beharrak eta lehentasunak zeintzuk diren ezagutzeko.
- b) Gutxienez Unibertsitateko hiru ikastegitan (ahal bada, campus bakoitzeko ikastegi batean) «**Prestakuntza tailerrak**» osatuko dira, esperientzia pilotu moduan. Tailer horiek ikastegiko irakasleentzat izango dira, eta Euskal Filologia edota Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailtako irakasleek zuzenduko dituzte. Irakasle horien lana saritu

egingo da, eta Gobernu Kontseiluak zehaztu beharreko kreditu-kopurua onartuko zaie. Gutxienez 8 irakaslek eman beharko dute izena tailerrak osa daitezen, bertako saioetan parte-hartzeko konpromisoa hartuz. Ikasturte osoan zehar iraungo dute tailerrek, baina oraindik zehazteko dago saioen aldizkakotasuna. Ikasgeletako saioak izango dira, baina horrez gain tailerrak plataforma birtual bihurtzeko aukera aztertuko da, beste ikastegi batzuetako irakasle interesdunek parte hartu ahal izan dezaten. Tailerrek prestakuntza etengabea eskainiko dute, ikastegiko errealitate akademiko eta soziolinguistikoari ongi egokitua. Baina ekarpen hori egiteaz gain, beste lan garrantzitsu bat burutuko dute; izan ere, beren ardura dutenek aukera izango dute euskararen benetako egoera zein den hobeto ezagutzeko, eta jakiteko zeintzuk diren irakasle eta ikasle aurreratuen kezka, arazo eta beharrak, euskarari dagokionez. Jakina, informazio hori guztia unibertsitateko hizkuntz politikaren ardura dutenenei ere eskainiko zaie.

Tailer horien egitekoak honakoak izango dira:

- Antzeko irakasgaia duten irakasleak prestatzea estandarizazioaren hainbat alderditan, batez ere lexikoaren eta berbaldiaren alorrean.
- Plataforma interaktibo eta deszentralizatua sortzea mota orotako zalantza linguistikoak argitzeko, batez ere irakats-materiala edo doktore-tesiak egitean sortzen direnak.

Ikasturtea amaitzean, tailerreko zuzendariak txosten bat igorriko dio errektoreordetzari, egindako lanaren berri emanez. Bi urtez balioetsiko dira tailerrak; ondoren, Euskara Errektoreordetzak, Euskara Batzordearen aholkularitzapean, erabaki ahal izango du esperientzia hori unibertsitateko beste ikastegi batzuetara eramanez.

Ikasleen prestakuntza linguistikoa, Europako Unibertsitate Eremuan ere nahitaezkoa

- a) Irakats eskaintzari buruzko atalean zehaztu dugun bezala, euskaraz ikasten duten ikasleen prestakuntza linguistikoa bermatzeko, **graduoko ikasketa berrietako ikasketa-planetan hautazko bi ikasgai ezarriko dira.**
- b) Euskara Errektoreordetzak, Euskara Institutuarekin eta interesa duten sailekin batera, hizkuntz prestakuntzarako **Graduondoko Programa Ofiziala** antolatzeke aukera aztertuko du.

Komunikatzeko gaitasuna izan beharko litzateke programa horren gaia. Izan ere, filologia eta linguistika arloko aditu askok diote gaur egun euskararen estandarizazio-prozesuaren arazo nagusiak ez direla zuzentasuna eta egokitasuna, baizik eta euskararen erabilera eta komunikatzeko gaitasuna. Beraz, hori horrela bada, azken gai hori landu beharko litzateke, eta ez bakarrik gaurkotasuna duelako; badu bestelako alde onik ere: graduondoko programa honetako parte hartzaileak izan daitezke unibertsitatean bertan graduatu ondoren goi-mailako ikasketekin jarraitzea erabaki duten ikasleak, baina baita euskal hezkuntza sistemako irakasle elebidunak ere, horien eguneroko lanak gaitasun komunikatibo handia edukitzea eskatzen baitie.

Programa honekin UPV/EHUK beste urrats garrantzitsu bat emango luke, euskararen estandarizazio-prozesuko eragile publiko nagusietako bat den aldetik, prozesu horretan duen ardura bere gain hartuz.

- c) UPV/EHUn Euskara Aholkularitzako Zerbitzua (EHULKU) martxan jarri zuenetik, Euskara Zerbitzuak tresna garrantzitsua garatu du, irakasle eta ikertzaile elebidunen zalantza terminologikoak argitzeko, eta haien lana errazteko.

Antzeko helburua dute EHULKU zerbitzuak astero bidaltzen dituen aholkuak euskara zuzen erabil dadin, baina aholku horiek ez daude alderdi terminologikoari hain estu lotuta. Esperimentu moduan, eta **lehen fase esperimental batean, EHULKU erabiltzeko aukera ikasle elebidun guztiei emango zaie**, horiek ere antzeko zalantza terminologikoak izaten baitituzte hasiera batean.

Neurri hori indarrean jarri eta urtebete pasatu ondoren, Euskara Errektoreordetzak eta Euskara Zerbitzuak esperientzia berri hori balioetsiko dute, batez ere ikusteko zenbatearainoko arrakasta izan duen, eta erabakitzeko dauden baliabideekin egingarria ote den aholkularitza-zerbitzu hori ikertzaile, irakasle eta ikasle elebidun guztien eskura jartzen jarraitzea.

4.6. Ikerketa eta zabalkundea

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-mailako ekoizpen zientifiko gehiena Euskal Herriko Unibertsitateak sortzen du. Egutero irakaslanak eta ikertzeko nahia uztartzen dituzten irakasle askok hizkuntza ofizial biak dakizkitez eta, askotan, baita beste bat ere. Nor-

malean hirugarren hizkuntza hori ingelesa izaten da, ikerketako «lingua franca» nazioartean. Erabat estandarizatuta ez dagoen euskara bezalako hizkuntza baten kasuan, euskaraz lan egin eta argitaratzen duten ikertzaileen ekarpenak ezinbestekoak dira, batez ere terminoen eta kontzeptuen kodetzeari dagokionez, arlo zientifikoetako corpus linguistikoa osatzen baita modu horretara.

Euskara Errektoreordetzak arlo hau bultzatu nahi izan du azken urteotan eta, horretarako, laguntzak eman dizkie doktoregai elebidunei doktorego-tesiak euskaraz egin ditzaten. Plan honetan jasotako erabakia lagungarri izango da euskarazko ikerketaren baldintzak hobetzeko: etorkizunean sortuko diren plazak beteko dituzten pertsoneri doktore-titulua eskatuko zaie, salbuespenak salbuespen.

Euskara Errektoreordetzak, Euskara Batzordearekin batera, deialdi honen emaitzak aztertu eta neurriak proposatuko ditu deialdi honen eraginkortasuna areagotzeko (laguntzen forma-tua eta kopurua; euskarazko atalak tesi europarretan; eta abar).

Euskaraz burutuko den ikerketa sustatzeaz gain, beharrezkoa dirudi esparru honetako hizkuntza-politika UPV/EHUko ikertzaileek lortutako emaitzak zabaltzera bideratzea, batez ere bi arrazoiengatik.

Batetik, unibertsitateko beste irakasleek eta ikasleek emaitzen berri izango dute, ikerketa-taldeen gain, eta modu horretara sendotu egingo litzateke unibertsitateko kide askoren hizkuntza-prestakuntza.

Bestetik, UPV/EHUko ikerlarien lana gizartean zabalduz gero, unibertsitate publikoak hobeto beteko luke Estatutuetoako 3. artikuluan jasotako helburuetako bat: «Euskararen gara-pena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan».

Ondoren proposatzen diren neurriok euskararen garapena eta normalizazioa bultzatu nahi dute, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileek egiten duten ikerketaren emaitzak euskaraz zabalduta:

1. Euskara Errektoreordetzak jardunaldi irekiak antolatuko ditu, urtean behin, zientzie-tako arloekin zerikusia daukaten ikerlanen emaitzak euskaraz zabaltzeko. Jardunaldi horien ardatza nagusia «*Zientzia Irakurle Ororentzat (ZIO)*» liburu-bilduma izango da. Bildumako liburuetan gaur egungo gai zientifikoak aurkezten dira, zehaztasun zientifikoa eta bizitasun literarioa uztartzen dituen estiloan, eta ereduzkoa izan nahi duen euskaraz idatzita.

Aipatutako jardunaldiak, beraz, ZIO bilduma hobeto ezagutzeko bidea izango dira baina unibertsitateko irakasle elebidunek euren emaitzak aurkezteko aukera izango dute, ZIOko liburuetan landutako gaien harira.⁹

2. Euskara Errektoreordetzak, bestalde, euskarazko aldizkari bat aterako du, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek sortutako ezagutza zientifikoa modu irakurgarriagoan zabaltzeko jendaratean.

Aldizkari hori, nagusiki, oraindik unibertsitatera etorri ez diren ikasle elebidunei egongo da zuzenduta, eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banatuko da.

Proiektu hau sendoagoa izan dadin, Euskara Errektoreordetza ahaleginduko da lankidetzaz-hitzarmenak izenpetzen interesa izan dezaketen erakunde publiko eta pribatuekin.

3. Euskal Herriko Unibertsitatean, hiru aldizkari argitaratzen dira euskaraz (Tantak, Gogoia, Ekaia), eta horietariko batek argitalpen elektronikoa era badu. Hiru aldizkariok euskara zientifikoa lantzeko eta garatzeko tresna garrantzitsuak dira. Horiek horrela, Euskara Errektoreordeak bi neurri proposatuko dizkie aldizkari horien arduradunei. Alde batetik, argitalpen elektronikoa oraindik ez duten aldizkariak formatu horretan argitaratzea, eta bestetik, ale bakoitzean aukeratutako artikulua bana ingeleraz ere argitaratzea. Horrela, hiru helburu lortuko lirateke: bata, artikuluen zabalkundea areagotuko litzateke euskaraz zein ingeleraz; bigarrenik, euskara zientifikoaren erabilera eta hedapena bultzatuko litzateke; eta hirugarrenik, ingelerazko bertsioak emango lukeen balio-erantsiri esker, euskarazko ekoizpen zientifikoa sustatuko litzateke.
4. Euskara Errektoreordetzak urtero laguntza deialdi bat aterako du euskaraz eginiko tesiengilerazko laburpena egin ahal izateko.
5. Euskara Errektoreordetzak bi urtez behin antolatuko du euskaraz egin eta defendatutako tesirik onenerako saria. Saria esleitzeko orduan, doktoregoko sari bereziak erabakitzeko erabiltzen diren irizpideak hartuko dira oinarritzat.
6. Unibertsitateak argitaratuko duen urtekari batek jasoko du euskaraz burutu eta zabaldu den ikerketaren berri.

⁹ Bizkaiko Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenari dago lotuta ZIO proiektua. Beraz, hitzarmen hori luzatuko ez balitz, proposatu diren jardunaldien izaera eta egitura berriro planteatu beharko litzateke.

4.7. Oinarrizko arauak unibertsitatean euskara erabiltzeko

Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate elebiduna da, euskararen eta gaztelaniaren erabilera normaldu eta ofiziala bermatu behar duena bere jarduera-eremu guztietan. Aurreko ataletan azaldu dira hainbat helburu, estrategia eta neurri zehatz elebitasuna lortzeko esparru hauetan: irakats-eskaintza, administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakasle eta ikertzaileak, ikasmateriala eta prestakuntza.

Hala ere, unibertsitateak baditu beste esparru batzuk, eguneroko gestioarekin zerikusia daukatenak, ezin direnak geratu hizkuntza-politikatik at: unibertsitate barruko zein kanpoko komunikazioaz ari gara.

Euskararen Normalizaziorako II. Plangintzak zehaztu zituen bere garaian hainbat arau, gero UPV/EHUren Estatutuetan jaso zirenak modu laburragoan. Elebitasunaren helburu orokorra eta arlo horretan unibertsitateko kideek dauzkaten eskubideak azaldu ondoren, 166. artikulua arau hauek xedatzen ditu:

1. «UPV/EHUko inprimaki ofizial guztiak eta errotuluak elebidunak izango dira.
2. Unibertsitatearen arautegi eta erabaki ofizialak bi hizkuntzetan emango dira argitara.
3. Dokumentuak erregistroetan inskribatzerakoan, dokumentuaren hizkuntza erabiliko da.
4. Unibertsitatearen jakinarazpenak eta oharra bi hizkuntzetan idatziko dira, baldin eta interesatuek hizkuntzetako bakar bat erabiltzea eskatzen ez badute beren-beregi».

Web orria eta aplikazio informatikoak

Oinarrizko arau horietatik abiatuta, arreta berezia jarri behar zaio unibertsitateko gestioan gero eta garrantzi handiagoa daukan arlo bati: komunikazio-teknologia berriak. Gaur egun, UPV/EHUko eguneroko kudeaketa-lanak ezin dira eraman aurrera GAUR aplikazioak eskaintzen dituen prestazioak erabiltzeke, azken urteotan martxan jarri diren beste aplikazio informatiko batzuk ez aipatzearren.

Bestalde, 2006ko abenduan abian jarri zen unibertsitatearen atari berria da, zalantzarik gabe, informazio-iturri nagusia unibertsitateko kideentzat eta bai, kanpoko pertsona interesduentzat ere. Horrela, bada, euskararen erabilera ez bada egokia web orrian edo aplikazio informatikoetan, bi hizkuntza ofizialen erabilera normaldua bermatzeko diseinatutako estrategiek ez dute izango arrakastarik.

Dena dela, esparru honetako helburuak eta neurriak definitzean ikuspuntu errealista eta posibilista erabili behar da. Izan ere, gaur egun badaude unibertsitatean zenbait aplikazio informatiko euskaratzeke, guztiz beharrezkoak direnak hainbat arlotan. Baina unibertsitatea ez denez aplikazio horien titularra, ezin du —nahita ere— legez euskarazko bertsiorik sortu, ez baldin baidu erosten, ez aplikazioa erabiltzeko eskubideak, ezpada jabetza-eskubidea bera (asmo zertu ezina). Horrexegatik, elebitasuna bermatzera zuzendutako helburuak eta estrategiak planteatzean, honako hauek bereizi behar dira: batetik, unibertsitateak sortu dituen eta, ondorioz, bereak diren aplikazio informatikoak; eta, bestetik, UPV/EHUrenak ez diren aplikazioak:

- a) UPV/EHUrenak diren aplikazio informatiko guztiak euskaraz eta gaztelaniaz erabili ahal izango dira. Horretarako bi neurri hartuko dira: Batetik, euskaratu egingo dira UPV/EHUren gestioan erabiltzen diren aplikazio informatikoetako erabiltzaileentzako atalak, euskaratu ga-beak edo osorik euskaraz ez daudenak. Bestetik, etorkizunean ez da sortuko aplikazio berri-rik, baldin eta funtzionamendua ez bada izango zuzena bi hizkuntzetan.
- b) Unibertsitatearen funtzionamendurako beharrezkoa balitz euskaraz ez dauden aplikazio informatikoen lizentziak erostea, halakorik erosi aurretik aztertu egingo da badagoen ala ez euskaraz ere kalitateko zerbitzua eskaintzen duen aplikazio informatikorik, eta horretarako software librearen aukera guztiak aztertuko dira. Ezaugarri horiek dituen aplikazio-rik egonez gero (antzeko kalitatea eta euskarazko bertsioa), horixe erosi beharko da.
- c) UPV/EHUren web gunea euskaraz eta gaztelaniaz egongo da. Euskarazko bertsiorik ez daukaten web orri instituzionalak ez dira migratuko unibertsitatearen atari ofizialera.
- d) Batzorde bat eratuko da, aipatutako neurriak betetzen direla ziurtatuko duena. Euskara Errektoreordetzak, Euskara Zerbitzuak, Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzak eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzak ordezkari bana izango dute batzorde horretan.

Erabiltzaileen parte-hartzea sustatzea

Jakina denez, hizkuntza-politikaren alorrean zaila gertatzen da hartutako erabakiak eta in-darrean dauden neurriak behar bezala ezartzea. Eta bereziki zaila gertatzen da, ezinezkoa ez esatearren, web orrien eguneroko elikatzea kontrolatzea, UPV/EHUren atarira migratu ondo-

ren. Urteetako ohiturak, inertiak eta, baita ere, utzikeria dira arazo horiek ulertzeko faktoreak. Arazoak konpontzeko, bi gauza behar dira: batetik, arazoa identifikatu eta kasuan kasuko atal eskuduna jakinaren gainen jarri; eta, bestetik, atal horien esku-hartze eraginkorra.

Gure nahia denez unibertsitateko kideak bultzatzea euskarak UPV/EHUn daukan erabilerari buruzko iradokizunak, proposamenak eta kritikak aurkeztera, **Euskara Errektoreordetzak bulego telematiko bat jarriko du abian («Euskal Hiztunentzako Bulegoa»)**. Bulego horrek jasoko ditu iradokizunak, proposamenak eta kritikak, kasuan kasuko gaia aztertuko du, eta hartutako neurrien berri emango dio bidaltzaileari.

Bulego honek sortutako informazioa Euskara Batzordearen esku jarriko da, sarritan agertzen diren arazoak konpontzeko proposamenak azter ditzan.

Hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea kanpoko enpresek edo erakundeek eskainitako zerbitzuetan

Hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzeko unibertsitatearen beste esparruetan ere, jendaurreko zerbitzuak eskaintzeko UPV/EHUK kontratatutako dituen kanpoko enpresak edo erakundeak gauza izan beharko dira zerbitzu horiek euskaraz emateko (tabernak, kopiagintza-zerbitzuak, liburu-dendak, paper-dendak, bidaiia-agentziak, etab.) Eskakizun hori kontratua baldintzen orrian agertu behar da.

Hala eta guztiz ere, enpresaburuaren subrogazio bidez langileekiko lan-harremana mantenduko balitz eta langile horiek jendaurreko arretarako behar den euskara maila izango ez balute, behin lanaren egonkortasuna bermatu ondoren eta posible den neurrian, euskaraz jakitea beharrezkoa ez den (edo neurri txikiagoan behar duten) eginkizun eta zereginak har litzakete. Esan beharrik ez dago, hori guztia esparru hori apurka-apurka euskaldun-tzen lagunduko duten neurriak hartzeari kalterik egin gabe izango dela.

Erabilera erraztu administrazio eta zerbitzuetan

Euskararen eguneroko erabilera errazteko, bai kanpoko harremanetan zein barrukoetan, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileei bereizgarri bat emango zaie beraiekin euskaraz egin daitekeela adierazteko.

4.8. Euskararen azpiegitura

Euskara Zerbitzuaren egitura indartzea

Euskara Zerbitzua da Euskal Herriko Unibertsitateak daukan oinarrizko tresnetako bat unibertsitate elebidun batek aurrera eraman behar dituen lanetarako, jakinda bi hizkuntza ofizialetako bat egoera diglosikoa dagoela eta laguntza behar duela. Ez da hau Euskara Zerbitzuak azken urteotan bete dituen eginkizun guztiak zehatz-mehatz azaltzeko tokia, baina eginkizun horiek bereziki alor hauetan bete ditu: ikasmateriala, corpusa eratzea, hizkuntza-aholkularitza, prestakuntza, dokumentu administratiboen itzulpena edo aldi bereko interpretazioa unibertsitateko hainbat forotan.

Dena dela, Euskara Zerbitzuaren ekarpenei esker urteotan normalizazio-prozesuan eman diren aurrerapausoez gain, argi geratu da zerbitzuak ere badituela disfuntzio batzuk, egitura ez baita guztiz egokia bete beharreko lanak behar bezala betetzeko. Disfuntzio horiek batez ere itzulpengintzaren eta ikasmaterialaren alorrean ematen dira, eta Plan Gidari honen helburua da disfuntzio horiek zuzentzea.

Lanpostuen zerrendan, gaur egun, itzultzaileen bost lanpostu agertzen dira: hiru Leioako Campusean, bi Arabakoan eta bat ere ez Gipuzkoan. Egunero sortzen diren dokumentu administratiboek kopurua oso handia da eta dokumentu horien itzulpenak nabarmen gainditzen du Itzulpen Zerbitzuaren lan-ahalmena. Horrexegatik, dokumentu horietako asko itzultzeko lanak kanporatu egiten dira urtero, lehiaketa publikoaren bidez adjudikatzen diren kontratuak eginez. Ez dago esan beharrik itzulpen guztien barneko kontrola handiagoa izateak onurak ekarriko lituzkeela bai itzulpenen kalitatean bai itzulpen-prozesuaren azkartasunean.

Bestalde, Itzulpen Zerbitzuan ez dago gaur egun, beste administrazio publikoetako antzeko zerbitzuetan gertatzen ez den moduan, zerbitzuko arduradun-koordinatzailearen lanposturik. Beraz, itzuli beharreko dokumentuak gero eta gehiago izanda, argi dago kalitate eta azkartasun-helburuak ez direla lortuko irudi hori izateke; izan ere, koordinatzaile hori arduratuko da, itzulpenak egiteaz gain, zerbitzua zentzuz antolatzeaz, modu koordinatu eta eraginkorrean.

Baina lanpostu hori bezain garrantzitsua da terminologarena. Lanpostu hori badago beste administrazio publiko batzuetan, beste izen bat izan arren batzuetan. Itzulpen eta interpretazio-lanak egingo lituzke, baina bere oinarrizko eginkizunak hauexek lirarteke: itzulpenen corpusa gestionatzea, glosarioak prestatzea eta informazio hori baliatuta datu-baseak antolatzea.

Azken finean, UPV/EHUko Itzulpen Zerbitzuak sortu eta erabiltzen duen terminologiaren gestioaz arduratuko litzateke.

Azkenik, gero eta gehiago direnez ikasmaterialgintza sustatzeko diru-laguntzen deialdian parte hartzen duten irakasle elebidunak, esparru honetan ere premia berriak sortu dira. Horrexegatik, lan-poltsa bat eratu da, hala material berri horien hizkuntza-zuzenketari ekiteko nola KREDIargi, KREDIjarraipen eta IBP moduko programetan sortutako materialen zuzenketari. Kontrataturako pertsona lanean ari da Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean, aipaturako ikasmaterialak zuzentzen. Baina premia estrukturala denez, eta ez egoeraren araberakoa edo unean unekoa, zentzuzkoa dirudi lanpostu hori sortzea.

Beraz, aipaturako guztiaren ildotik, eta lanak hobeto bete ditzan, **Euskara Zerbitzua indartzera** zuzendutako neurri moduan, **ondoren aipatzen diren lanpostuak UPV/EHUren erreferentziako plantillan sartzea proposatuko da:**

- a) Itzultzaile-interpreteta Gipuzkoako Campuserako.
- b) Itzulpen eta Interpretazio Zerbitzuko arduradun-koordinatzailea Leioako Campuserako.
- c) Terminologoa Leioako Campuserako.
- d) Euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-begiraletza eta zuzenketako teknikaria.

4.9. **Beste unibertsitate erakundeekiko elkarlana**

UPV/EHUK, bere plangintza estrategikorako oinarrietan aurreikusten dena betetzeko, unibertsitate erakundeen arteko sare akademikoa sortzearen aukera aztertuko du eta azterketa horren ondorioz sare hori bideragarria dela ondorioztatzen bada, horretarako proposamena luzatuko die Euskal Herriko beste erakundeei. Horrela, jarduera desberdinen inguruko lankidetzeta eta aipatu unibertsitate erakundeetako ikasle eta irakasleen mugikortasuna sustatuko litzateke, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz.

5

Planaren indarraldia eta finantziazioa

Euskararen Plan Gidariak bost ikasturteko indarraldia izango du, 2007/08 ikasturtetik 2011/12 ikastertera arte.

Plan Gidari honetan jasota dauden ekimenak garatu ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateak bere aurrekontutik bideratuko ditu beharko diren baliabideak.

